

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2026ko otsailak 27 · 1387 zenbakia



BERTSOTAN ESKUALDEA ARGITUZ



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritsi
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2. 2º
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

otsailaren 26tik martxoaren 18ra
errigora.eus



ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA



Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan**

Eibarko **PROFESIO LIBERALAK**

ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4, 3 D lokala

Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70

abogada@martavalera.es

AHOLKULARIAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.com

consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kittto!)

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTuben ikusgai



www.etakitto.eus



Bigarren kanporaketari begira daude Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketan Debabarreneneko taldeak. Gaur, otsailaren 27an, Deporren, Alkolea (Mutriku) eta BertSora (Soraluze) taldeak ariko dira nor baino nor, 20:15ean. Debabarreneneko lau taldeetako kideekin elkartu gara, eskualdean lehiaketek duten helburuez hitz egiteko.



eta kitto!
euskara elkarteak



2024
KIDIZKARIA ALDIZKARIA
DIPLOMA



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar eta Iruñe Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



OHARRA

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

ERREDAKZIOA

Hortik esanak



Jeffrey Epstein-en kasuak mundu osoari erakutsi zion zer gertatzen den salaketak gutxiesten direnean eta botereak erasotzailea estaltzen duenean. Baina ispilu hori ez da hain urrun geratzen. Gure auzoetara ekartzen badugu, galdera mingarri bat sortzen da: zer gertatzen da sistemak ez duenean garaiz eta modu eraginkorrean kontrolatzen arriskua?

Euskal Herrian, azken urteetan, 46 emakume hil dituzte bikotekide edo bikotekide ohien eskuetan. Azkena, Sarri-gurenen. 46. Ez dira zenbaki hutsak. 46 bizitza dira. 46 etxe isildu. 46 hutsune betiko.

Eta kasu askotan aurretik salaketak egon dira. Babes-aginduak. Urruntze-aginduak. Baina hemen galdera ezinbestekoa da: benetan sinesten al dugu 30 metroko distantziak bizitza bat babesten duela? Zer dira 30 metro pertsona batek kalte egiteko erabakia hartua duenean? Zer dira 30 metro kale batean, atari batean, lantokira bidean? Paperean marraztutako lerro batek benetan geldiarazten al du kaltea eragiteko prest dagoen norbait?

ITZIAR INSAUSTI, antropologoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PLISTI-PLASTA. → Onomatopeia. Uretan edo basatzan ibili eta zipriztinak atera”. “Han dabil plisti-plasta basa artian”.

“Atzo ezkontza baten egon giñan eta ple-ple amaittu genduan”.

PLOST EGIN. → Lehertu, baina indar gutxirekin. “Sutan ipiñi orduko plost editen dabe hónek sagarrok”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 27
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUAZTENA 4
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 5
EGUNEZ Barandela (Ziriako Agirre, 4)
BARIXAKUA 6
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Indalecio Fidalgo Rodriguez "Inda"**. 86 urte. 2026-II-18.
- **Pedro Julian Zuzaeta Urkidi**. 91 urte. 2026-II-20.
- **Jose Luis Morales Lopez**. 76 urte. 2026-II-21.



Martxoaren 6an aurkeztuko du Gure Eskuk Herritu ekimen berria Eibarren

S.H. Urtarrilean Bilbon egin zuten bezala, Eibarren ere aurkeztuko du Gure Eskuk Herritu izeneko ekimen berria: datorren astean, martxoaren 6an (barixakua) izango da, 19:30ean Errebalgo plaza estalian. Ekimenari buruzko azalpenak emateaz gain, abeslari batek eta bertsolari batek ere hartuko dute parte ekitaldian. Gainera, Herritu ekimena Eibarren sustengatzen duten pertsona ezagunen hamaiakakoa ere orduan emango dute ezagutzera, bertan. Euskal Herria-

ren burujabetza eta erabakitze eskubidea aldarrikatzeko abiatu berri den ekimena herriz herri aurkezten ari dira, eta Interneten ere, ekimenari buruzko informazioa eta baliabideak eskuragarri ipini dituzte (www.herritu.eus). Bertan azaltzen dutenez, Herritu “norberaren euskal herritartasuna adierazteko euskarri fisiko sorta bat (txartela, pina eta pegatina) da, baina, batez ere, ekintza bat, euskal komunitatea trinkotu eta eraikitzen jarraitzeko”.

Udaberri Sariaren eraginez trafikoa aldaketak egongo dira domekan

S.H. Domekan, martxoaren 1ean, Txirrindularitzako XLVIII. Sari Nagusia Eibarren jokatu dela eta, horrek trafikoa eragingo dio la ohartarazi dute Udaltzaingotik. Lasterketa Toribio Etxebarria kale irtengo da, 9:45ean, eta 11:45 aldera Toribio Etxebarria kalera ailegatzea espero da. Beraz, tarte horretan automobila hartzeko asmoa izanez gero, seinalezatutako tokietan arreta berezia ipintzeko eskatu dute.



Itaiak eskualde mailako egitaraua prestatu du Emakumearen Nazioarteko Egunerako

S.H. Deba bailarako Itaiak, Emakumeen Antolakunde Sozialistak, Martxoaren 8rako egitaraua antolatu du Debarrenerako. Horrela, “Emakume langileok askatzeko batu borrokara!” goiburuari jarraituta, eskualdeko hainbat herritan izango dira ekimenak. Eibarren, autodefentsa tailerra egingo da martxoaren 7an (zapatua), 11:00etan Ronin Club-en. Egun eta ordu berean,

baina Deban, kafe-tertulia egingo dute, Ispilu gelan. Eta autodefentsa tailerra ere egingo da, bihar (otsailak 28) Mendaroko gaztetxean, 11:00etan. Martxoaren 1ean, bestetik, Itziarren sormen tailerra eta proiektzioa (Ellas en la ciudad) egingo dute, 18:00etan. Amaitzeko, Martxoaren 8an Debarrenerako mobilizazio bateratua deitu dute, 12:30ean Ermuan (Martxoak 8 plazan).



Hasi da Errigoraren 'Eskutik eskura' kanpaina

S.H. Atzo hasi zen Errigora ekimenaren 'Eskutik eskura' kanpaina, Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko baratzeko produktuak Euskal Herriko etxeetara eramateko helburuarekin. Martxoaren 18ra arte egongo da martxan. Epe horretan, herritarrek oliba-olio birjina estra, ardoak eta arroz-, pasta-, lekale- eta kontserba-sortak eskatu ahal izango dituzte errigora.eus webgunean. Produktu guztiak ekoizlearen jatorrizko prezioan eskainiko dira, eta euskaraz etiketatuta iritsiko dira etxeetara. Aurtan ere, Debabarreneko hainbat eragilek babestuko dute ekimena eta, auzolan horri esker, produktuak eskualdeko hainbat herritan jasotzeko aukera izango da oraingoan ere.

PSE-EEK Eibarren ospatuko du 1976ko lehen mitin demokratikoaren 50. urteurrena

S.H. PSE-EEK martxoaren 1ean (domeka) ospatuko du 1976an, demokrazia berrezarri ondoren, Espainia osoan egin zen lehen mitinaren 50. urteurrena. Gertaera hura Eibarren izan zen eta, antolatzaileen esanetan, "herrialdean askatasun politikoaren aro berri baten hasiera" sinbolizatu zuen. Mendeurrenaren harira antolatu duten ekitaldia 11:30ean egin-

go da, Errebalen (areto polibalentean), eta bertan izango dira, besteak beste, Jon Iraola Eibarko alkate eta sozialista eibartarren idazkari nagusia, eta Eneko Andueza, PSE-EEko idazkari nagusia, beste ordezkari instituzional eta sozialistekin batera. Ekitaldian, halaber, mitin hartan parte hartu zuten pertsonei omenaldia eta aitortza egingo zaie.

SKATE & ROLLER

ASTE SANTUKO KANPUSA

**MARTXOAK 30,31
APIRIKAK 1,7,8,9,10**

GOIZEKO KANPUSA:
8:45-13:15

ARRATSALDEKO
INTENTSIBOA:
15:45-17:45

IZEN EMATEAK:
679 51 35 92

IPAR

Izadi

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

**PUBLI
RESA**

osagarrien pertsonalizazioa

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
943 701 497 / 687 879 667
publiresa@publiresa.com

Armagin 3-5 beheak



Eguaztenean aurkeztuko dute Debabarrena Zaporeak erronka Eibarko udaletxean

S.H. Eskualde mailan egingo den erronkaren aurkezpen ofiziala eguaztenean, martxoaren 4an egingo da, 18:30ean Eibarko udaletxeko udalbatzar aretoan, eta herritar guztiak gonbidatuta daude. Martxoaren 9an hasiko den Zaporeak Debabarrena erronka berria prestatzeko bilera egin zuten boluntarioek aurreko astean, eta bertan banatu zizkieten lehen errifa-sortak, saltzen hasteko. Bertiko moduan, erronkaren amaieran egingo duten zozketako sari-dunek Eibar eta inguruko artisten lanak, eta urtero erronkarekin bat egiten duten jatetxeetan bazkari/afariak irabaziko dituzte. Rifen

salmentari esker biltzen den dirua, berriz, Debabarreneko erronkaren baitan biltzen den janaria eta bestelako materiala Greziako errefuxiatuei bidaltzeak eragiten dituen garraio-gastuei aurre egiteko erabiliko dute. Errifak saltzen lagundu nahi dutenek Zaporeak ekimeneko kideekin harremanetan jar daitezkeela esan dute. Bestalde, antolatzaileek hezkuntza-zentroei ere parte hartzeko gonbita egin diete. Gainera, ikastetxeek sentsibilizazio-saioak antolatu nahi badituzte, errefuxiatu-eremuetan egon diren boluntarioak beraien bizipenak ikasleekin partekatzeko prest daude.

Ondasun Higiezin Zerga telematikoki zein posta bidez izapidetzeko aukera

S.H. Eibarko Udalak hobekuntza esanguratsuak egin ditu Ondasun Higiezin gainera Zergari (OHZ) loturik: aurrerantzean, izapidea ez da soilik aurrez aurre egin behar, eta online nahiz posta bidez ere aurkeztu ahal izango da. Gainera, berrikuntza gisa, eskaera egiten duten pertsona guztiek idartzizko ebazpen formal bat jasoko dute, sistema berezia onartu zaien ala ez jakinarazteko. Ogasun zinegotzi Luis Vicente Castellanosen iragarri du OHZren hurrengo kanpainari begira beste hobekuntza batzuk ere prestatzen ari direla.

Martxoaren 8an ospatuko da Zuhaitz Eguna Eibarren

S.H. Martxoaren 8an ospatuko da aurtengo Zuhaitz Eguna Eibarren. Ekimena Eibarko Udaleko Ingurumen Sailak, Lurgaia Fundazioa, Eibarko Baso Biziak eta Eibarko Klub Deportiboak elkarlanean antolatu dute, eta Pagaegikortako udal-lursailen egingo da, Urko inguruko basoak leheneratzeko proiektuaren bigarren fasearen barruan. Herritar guztiei irekita dagoen jardunaldi honetan, bertako 20 espezie baino gehiagoko 500 zuhaitz landatuko dituzte (haritzak, pagoak, hurritzak, gatzainondoak, lizarrak, ezkiak eta fruitu-arbolak, besteak beste), bertako basoa berreskuratzeko helburuarekin. Parte-hartzaileak taldean igoko dira Pagaegikortako lursailera, bi elkargunetatik abiatuta: 08:30ean Eibarko Klub Deportiboan, eta 09:30ean Izua auzoko aparkalekuan. Landaketa lanak Pagaegikorta baserriaren inguruan egingo dira, eta jardunaldia 13:30 aldera amaituko da, J.M. Mogel ikastolan egingo den hamaiketakoarekin. Plazak mugatuak dira, eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da aldeztu aurretik izena ematea, martxoaren 5a baino lehen Lurgaia Fundazioari mezua bidalita (info@lurgaia.org).





Martxoaren 8ko egitaraua prestatzeko bilera irekia egingo dela iragarri dute.

Marasmia izeneko talde feminista jaio da Eibarren

S.H. Aurreko asteko barixakuan aurkeztu zuten Eibarren eratu berri den talde feminista: Marasmia. Ekitaldian adierazi zutenek, taldea aurreko ikasturtean zehar eta kurtso honen hasieran egindako ariketa kolektiboaren emaitza da. Adin tarte zabala ordezkatzeko emakume taldea elkartu zen Kulturalean, eta arretaz jarraitu zituzten taldeko ordezkarien azalpenak: “Feminismoak berak dituen ideologiak zehaztu nahi izan ditugu, borrokaren aurrean jarrera argi bat izateko, eta taldea osatzen dugun pertsona guztiek gutxieneko izendatzaile komun bat erabaki dezagun. Eta, adostutako oinarriek aldatetak jasan ditzaketen arren, ideia berriei dagokien pisua eman gozaie, talde-prozesu baten bidez”. Indarkeria matxista ikusaraztea

eta publikoki salatzea da helburu nagusienetako bat: “Errealitate horiek kalera eraman nahi ditugu, eta erasoaren aurrean nola erantzun hausnartu, bai modu indibidualen bai kolektiboan. Sistema zisheteropatriarkalari aurre egin nahi diogu, autodefentsa feministatik”. Taldearen atea belaunaldi guztientzat zabalik daude, eta Matraka taldearekin elkarlanean aritzeko prest azaldu dira. Jakinarazi dutenez,

“Sistema zisheteropatriarkalari aurre egin nahi diogu, autodefentsa feministatik”



Martxoaren 8ko egitaraua antolatzekeo bilera irekia egingo da, baina eguna eta tokiak zehazteke daude (jakin eta berehala kaleratuko dugu www.etakitto.eus web orrian eta gure sare sozialetan).

Emakumeak sarean, askatasuna ehuntzen

Emakumeen Nazioarteko Eguna ate joka daukagu eta, urteroko martxan, aurtien ere hilabete osorako egitaraua prestatu du Martxoaren 8ko lantaldeak. Hain zuzen ere, Emakumeen Nazioarteko Eguna kolektiboki antolatzea eta egitarau bateratua osatzea da lantalde honen helburua, osatzen dutenen berbetan. Eta, asmo horrekin, azken hilabeteotan buru-belarri aritu dira lanean, Martxoaren 8rako programazioa prestatzen.

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**

MARTXOAK 8 LANTALDEA 2026

ALIANTZA FEMINISTAK

MARTXOAK

24k 3ha
ERAKUSKETA
Greha orokor
feministak
Aurtien
9:00 - 13:00 eta
16:30 - 19:30

5 OSTEGUNA
LIBURU-
AURKEZPENA
Amelarrak
hain Eskal
Feminismoa,
aldaketarako
paradigma
Apar. Torredor
Aurtien eta
Eskal. Piretti
Aurtien
18:00

8 IGANDEA
MOBILIZAZIOEKOIN
BAT

13 VIERNES
ZINE FORUM
She said
Aurtien
19:00-23:00
Aurtien
18:30 (Cint.)

15 IGANDEA
MENDI-
IBILALDIA ETA
TOPAKETA
Eibarko Klub
Deportiboa
10:00-13:00
Izen ematea
ANDRETXEAN
DEPORTEKO
WIFI EAN
18:00 (Cint.)

19 JUEVES
ERAKUSKETA
AURKEZPENA
Zaintza
taupada
Aurtien
Aurtien
Aurtien
18:00 (Cint.)

24 MARTES
EMAKUMEEN
HISTORIA
EGITEN lehenko
SAIOA
Bideo foruma:
Nereka
Aurtien
17:00-19:00
(Cint.)

25 OSTEGUNA
ANTZEZLANA
Zanbaila
Aurtien
19:00

ANTOLATZAILEAK

Logo de Aliantza Feministak y otros socios.

Aurtien ere, Eibarko emakumeen eskubideak eta berdintasuna erdigunean jarriko dira. Martxoak 8ko lantaldeak azaldu dutenez, “feminismoa aitortu eta indartzea da asmoa, eta, horretarako, askotariko jarduerak antolatu ditugu. Horien bidez, diskriminazio-egoerak agerian jarri eta gizarte-eraldaketa sustatu nahi da”.

Egitaraua parte-hartzaileek adostutako gai nagusi baten bueltan antolatu dute aurtien ere. Horrela, 2026an, arreta berezia jarriko zaie Aliantza Feministei, “ikuspegi integratzaile eta dekolonial batetik landuta”. Ardatz gisa hori aukeratzeko arrazoiak ere azaldu dizkugute: “Feminismoa eraldaketarako tresna politiko, sozial eta ekonomikoa da. Gero eta konplexuagoak diren zapalkuntza eta botere egiturei aurre egiten die, eta diskurtso LGTBIfobo, arrazista eta klasistak gainditzeko lanean ari da. Horregatik, aliantza feministak sortzea eta indartzea proposatzen da, estrategia kolektibo gisa. Gaur egungo sistema zisheteropatriarkalak ikuspegi kapitalista, kolonialista eta arrazistak sustatzen ditu. Feminismotik, ordea, aldarrikapen eta proposamen bateratuak egin daitezke, LGTBIfobiarik eta arrazakeriarik gabeko gizarte baten alde. Helburua argia da: indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bermatzea”.



Arrate Kultur Elkartea, ...eta kitto! Euskara Elkartea, Egoaizia GKKE, ENE Eibarko Nagusien Elkartea, Eibarko Klub Deportiboa (Mendia), Pagatxa emakume elkarteak, Amakin Eibar eta Andretxea dira antolatzaileak, Eibarko Udarekin batera. SILBIA HERNANDEZ

Astelehenean Andretxean zabalduko den 'Greba orokor feministarantz' erakusketarekin hasiko da programazioa

Egitaraua astelehenean, martxoaren 2an abiatuko da, David Beorlegui Zarranzek egindako *Greba orokor feministarantz* erakusketa zabaltearekin batera. Martxoaren 31ra arte Andretxean ikusi ahalko den erakusketa honek ibilbide kronologiko eta tematiko bat proposatzen du, XIX., XX. eta XXI. mendeetan emakumeak protagonista izan diren hainbat mobilizazio-esperientzia publikoari hurbiltzeko. Erakusketa 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era bisitatu ahalko da.

Martxoaren 5ean (eguna), *Amaieratik hasi. Euskal Feminismoa, aldaketarako paradigma* liburuak aurkeztuko dute Naia Torrealdai Mandalurizek eta Ekhiñe Petriatik, 18:00etan Andretxean. Liburu horretan Naia Torrealdai feminismoetan bizirik dauden korapiloak izendatzen ditu, besteak beste. Ekhiñe Petriatirekin aurkeztuko du, eta, ondoren, gaiaren inguruko solasaldia egongo da (euskaraz izango da).

Hurrengo egunean (martxoak 6, barixakua) Maria Villalobos Gilek genero-indarkeria aztertuko du, 18:00etan Andretxean hasiko den *Aliantza estrategikoak genero-indarkeria bikario eta instituzionalak desagerrarazteko* izenburuko hitzaldian (gazteleraz).

Martxoaren 8ko mobilizazioak, zine-forum feministak, antzerki laborategi feministak eta emakumeen mendi ibilaldiak osatzen dute egitaraua, besteak beste. Programazioa osorik jasotzen duen kartela herrian zehar ipintzeaz gain, Interneten kontsultatzeko aukera ere badago, Berdintasuna-Andretxearen webgunean (aldameneko QR kodea eskaneatuta zuzenean zabalduko da).

Aliantza feministen bidez, gaur egungo desberdintasun eta bidegabekeriei aurre egin nahi zaie, sareak ehunduz, gizarte demokratikoagoa eta bidezkoagoa eraikitzeko

Egitarau osoa ikusteko



Herritik herrira, bertsoa sarean lantzen

Bigarren kanporaketari begira daude Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketan Debabarreneko taldeak: gaur, otsailak 27, Eibarren jokatu dute hurrengo saioa, formatu kolektiboak bertsolaritza bizitzeko beste modu bat proposatzen duen honetan.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXABARRIA**

Bertsolaritza ez da beti bakarkako lehia, ezta plaza handietako txapelketa soil bat ere. Batzuetan, aitzakia da elkartzeko, kantatzeko eta sareak ehuntzeko. Horixe ari da gertatzen aurtan Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketa delakoan, Debabarrenean bereziki, hiru herri eta lau talderen arteko lehia baino askoz gehiago baita.

Lehen kanporaketa otsailaren 20an jokatu zuten Soraluzeko Gaztetxean, Xarmaginak (Eibar) eta Arnoate (Mutriku) taldeen artean. Saio xumea izan zen, entzule kopuruari dagokionez, baina parte-hartzaileen esanetan, giro goxoa eta erosoa nagusitu zen. “Saio polita izan zen, ariketa desberdinak egon ziren eta gustura kantatzeko moduko giroa sortu zen”, azaldu du Eneko Beretxinagak (BertSora). Alexander Idoe-tarentzat (Arnoate), gainera, berezia izan zen beste arrazoi batengatik: Arnoate taldeko kide Bihotz Bas-terretxeak lehen aldiz hartu zuen parte Herriarteko batean. “Urteak daramatzagu elkarrekin bertso eskolan, eta ilusio handia da ikaslea lehen aldiz halako saio batean ikustea”, aitortu du.

Lehen aldia askorentzat

Nahiz eta Herriartekoa ez den egitasmo berria —1999an eta 2017an ere jokatu zen Gipuzkoan—, Debabarreneko parte-hartzaile askorentzat lehen esperientzia izaten ari da. Eibarren kasuan, esaterako, lehen aldiz aurkeztu dute taldea. Maialen Bergarak (Xarmaginak) azaldu duenez, hasieran zalantzak izan zituzten, baina azkenean pausoa ematea erabaki zu-



ten: “Pozik gaude, eta uste dut Herriartekoak beste indar edo ‘punch’ bat hartu duela aurtan”.

Malen Aldalurrek (Alkolea) ere antzeko sentipena du, eta bere esperientziatik hitz egiten du: “Bertso es-



Ezkerretik eskuinera: Malen Aldalur, Eneko Beretxinaga, Maialen Bergara eta Alexander Idoeta . EKHIBELAR

kolan gabiltzan askok ez dugu ohitura handirik plazan kantatzeko; askotan ikasketa-prozesuan gelditzen gara, eta lehiaketarako jauzia ematea kostatzen da”. Haren ustez, Herriartekoaren talde izaerak bide berri bat irekitzen du bertsoaren praktikara: erronka ez da norberarena bakarrik, kolektiboa baizik, eta horrek konfiantza sortzen du. Taldeak elkartzera, elkarri entzun eta entrenatzera bultzatzen ditu kideak, eta horrek plaza beldur gutxiagorekin zapaltzeko aukera ematen du.

Formatuak ematen duen askatasuna

Parte-hartzaileek nabarmendu dute Herriartekoaren formatuak baduela zerbait berezia. Ariketak, oro har, ohiko txapelketetakoak izan arren, antolaketa taldeka egiten da, eta horrek logika desberdina dakar. Gainera, amaieran talde guztiek elkarrekin kantatzen duten kopia-saioa izaten da, saioari kutsu kolektibo eta parte-hartzaileagoa emanez. “Horrek beste giro bat sortzen du”, azaldu du Bergarak.

Aldalurrek ere argi du: “Txapelketa batean inoiz atrebituko ez zen jendea animatzeko aukera polita da. Taldean kantatzeak beldurra kentzen du”. Presioa banatu egiten da, eta norbera ez da bakarrik sentitzen oholta gainez. Horrek, gainera, hasiberrientzako ariketak sartzea ere ahalbidetzen du, belaunaldi berrientzako ateak irekiz.

>>> "Bertso Eskolako irakasle gisa ilusio handia da ikaslea lehen aldiz halako saio batean ikustea"

Debabarreneko bertsoaren egoera: hauskorra, baina itxaropentsua

Parte-hartzaileek nabarmendu Debabarrena mailan, bertsolaritza sektorea gaztetxoaren eskoletan oinarritzen dela nabarmendu dute bertsolariek. Eneko Beretxinagaren arabera, azken urteetan hainbat talde sortu dira, eta herri gehienetan daude gaztetxoentzako bertso eskolak. “Gaztetxo esaten dugunean, 9-13-14 urte bitarteko umeez ari gara. Bertsozale elkarteek bideratu eta lagunduta, azken urteetan eskualdean bertso eskolak sortu dira adin tarte horri dagokionez. Horrez gain, hezkuntzan transmisio proiektuaren barruan, 8-12 urte bitarteko gaztetxo gehienek parte hartzen dute Debabarrenean”, azaldu du Beretxinagak.

Helduen artean, berriz, parte-hartzea ez da beti konstantea. “Foku ezberdinak daude: batzuk maizago aritzen dira bertsotan, eta beste batzuk egoeraren arabera edo aukeren arabera aktibatzen dira. Badago jendea bertsotan egiteko elkartzen dena, beste batzuk



Bigarren kanporaketari begira daude Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketan Debabarreneko taldeak. EKHI BELAR

antolakuntzan aritzen dira saioak prestatzen, eta baita irakaskuntzan eta transmisio lanetan dihardutenak ere. Herriarteko proiektuak, bereziki, balio digu pixkat inguratzeke, elkarren artean egiteko, berba egiteko eta sare hori sortu edo trinkotzeko”, gehitu du.

Eibarren, berriz, pozgarria da lehendabizikoz talde bat sortzea Herriartekoan parte hartzeko. Maialen Bergarak azaldu duenez, “gonbidapena heldu zitzaigunean, zalantza handiak izan genituen, baina oso pozik gaude lortu dugulako. Gainera, ikustea Debabarrena mailan hiru talde lortu direla ere pozgarria da”. Alexander Idoetak ohartarazi du Mutrikuko Bertso Eskolak ibilbide luzeagoa duela eta beste lekuetan sortzen diren taldeak desagertu egiten direla sarritan. “Orokorrean, bertsolaritza egoera hauskorrean dago, batzuetan gutxiarekin poztzen gara, eta modu relatiboan begiratu behar da. Nik uste dut jarduera hau egoera hauskorrean dagoela”, adierazi du.

Transmisioa eta tradizioa, halaber, ekimen txikietan ere ikusten da. Eneko Beretxinagak adierazi du azken urteetan bertso paper lehiaketak, hala nola Mutrikuko ‘Okelar Bertso paper sariketa’, zenbait urtez antolatu gabe egon direla. Mendaroko ‘Mendaro Txirristaka’-ren kasuan, berriz, 2024an 150 urte bete ziren Eusebio Mugertza Txirristaka jaio zela; hori ere transmisiorako baliagarria izan da, batez ere hezkuntza arauturako.

>>> "Txapelketa batean inoiz atrebituko ez zen jendea animatzeko aukera polita da. Taldean kantatzeak beldurra kentzen du"

Alexander Idoetak nabarmendu du eskualde hau historikoki ez dela bertsozaletasun handiko gune, nahiz eta eskualdeko bertsolariak dauden. “Baina gauzatxoak ateratzen dira, eta pozteko arrazoiak ematen ditu. Batzuetan gutxiarekin poztzen gara, baina konturatzen zara gutxi behar dela guztia desegiteko, eta egoera hauskorra dela”, gehitu du.

Bigarren saioa, Eibarren

Orain, begirada bigarren kanporaketan dute jarrita. Gaur, Deporren, Alkolea (Mutriku) eta BertSora (Sorluze) taldeak ariko dira nor baino nor. “Ondo pasatzea espero dugu, nahiz eta urduritasuna hor egon”, dio Aldalurrek.

Azken mezua, berriz, argia da: herritarrak bertara gerturatzeko deia luzatu dute bertsolariek. “Animatu etortzera, saio polita izango da eta giro erosoa sortuko dugu”, azpimarratu du Bergarak.



AURREKO SAIOAN

Debabarreneko inauterietan herri bakoitzak bizirik eusten dituen ohitura eta pertsonaia tradizionalak aztertu genituen.

HURRENGO SAIOAN

Eskualdeko hainbat herritako kirol edo jarduera "bi-txiak" ezagutuko eta probatuko ditugu.

ALBISTEAK

Hego Euskal Herrian gutxieneko soldata 1.500 euroan ezartzeko greba orokorra deitu dute martxoaren 17rako.



Debegesak, udalekin elkar-lanean, eskualdeko etxebizitza-bulego ibiltaria jarri du martxan informazioa eskaintzeko.



Ots 27

M8	M8 ASANBLADA IREKIA	18:00	EMAKUMEEN TOPALEKUA (ERMUA)
ANTZER.	PERO NO SE LO DIGAS	20:30	ANTZOKI (ERMUA)
BERTSO.	GIPUZKOAKO HERRIARTEKOA (I.FASEA)	20:30	KLUB DEPORTIBOA (EIBAR)
ANTZER.	EL PEOR ESPECTACULO DEL MUNDO	19:00	UNI EIBAR (EIBAR)
MAGIA	IAGOMAGO	19:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)

Ots 28

DANTZA	MERKATU PLAZAN DANTZAN	12:00	MERKATU PLAZA (ERMUA)
JARDUN.	FLAMENKO JAIALDIA ANDALUZIA EGUNA	16:00	ANTZOKIA (ERMUA)
TXAPEL.	PALA TXAPELKETA	09:00	ASTELENA (EIBAR)
TAILER.	CLOWN TAILERRA	10:00	IMP (EIBAR)
IPUIN.	LIBURU MAGIKOA	12:00	PORTALEA (EIBAR)
ANTZER.	HODEI GUZTIEN GAINETIK	20:00	COLISEO (EIBAR)
MUSIK.	DEUS EZ	18:00	ZAIZOI (EIBAR)
MUSIK.	KINKI BOYS + ATERKINGS	18:30 ATEAK	GAZTETXEA (ELGOIBAR)
MUSIK.	HECETU WELO + KODA	20:00	GAZTETXEA (DEBA)
MENDIA	ZUHAITZ EGUNA	09:00	URKIAZELAI (SORALUZE)
MUSIK.	PIANOAZ GOZATZEN	09:30	ANTZOKIA(SORAL)
TAILER.	AUTODEFENTSA (M8. ITAIA)	11:00	GAZTETXEA (MENDARO)
PILOTA.	BINAKAKO TXAPELKETA	17:00	PILOTALEKUA (MALLABIA.)

Mar 01

MUSIKA.	DULTZAINEROEN DIANA	10:00	KALEGOEN PLAZA (ELGOIBAR)
	UDAL MUSIKA BANDA	12:30	ANTZOKIA (ELGOIBAR)
JAIK	INGERU GUARDAKOA TRIKITIXA/HERRI KIROLAK	12:30	INGERU GUARDAKOA ERMITAN (MENDARO)
MENDIA	ZUHAITZ EGUNA	09:00	AYRA CARDAN PAREAN (ITZIAR)
M8	SORMEN TAILERRA + PROIEKZIOA (ITAIA) "ELLAS EN LA CIUDAD"	18:00	BURUGORRI GAI-NEAN (ITZIAR)
ANTZER.	LOREEN HIZKUNTZA	19:00	UNI (EIBAR)



1.500 euroko gutxieneko soldata lortzeko greba orokorra



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Martxoaren 17an greba orokorra deitu dute LAB, ELA, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek. Horren bitartez, presio egin nahi diete Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta patronalari, Hego Euskal Herrian gutxieneko soldata propioa edukitzeko, 1.500 eurokoa hain zuzen ere. Greba egunean, Eibarren goizean eta arratsaldean egingo dira mobilizazioak.

Hego Euskal Herrian 1.500 euro gordineko gutxieneko soldata propioa ezartzeko helburuarekin, ELA, LAB, Steilas, Hiru eta Etxalde sindikatuek greba orokorra deitu dute martxoaren 17rako Hego Euskal Herrian. Espainiako Estatuan gutxieneko soldata 1.184 eurokoa da eta, 1.500 eurora igotzeko, diferentzia Nafarroako eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gobernuek jartzea proposatzen dute. Beraz, 'LGS (Lanbide arteko Gutxieneko Soldata) hemen erabaki' goiburua erabiliko dute grebarako.

Eguaztenean, grebaren deialdia egin duten sindikatuek prentsaurrekoa eskaini zuten Untzagan eta grebarako arrazoiak zeintzuk diren jakinarazi zuten. Horrela, egungo gutxieneko soldata nahikoa ez dela salatu dute, bizi-kostuaren igoerak langile askoren egoera zaildu duelako. "Bizitza garestitu egin da, baina soldatak ez dira neurri berean igo. Ondorioz, langileok erosahalmena galdu dugu. Soldatek 2008ko pisua berreskuratuko balute, 1.523 milioi euro gehiago jasoko genituzke", diote.

Datu batzuk mahai gainean jartzeagatik, gaur egun 307.000 langilek 1.500 euro baino gutxiago kobratzen dute (gehienak emakumeak eta langile migratuak); 2013-2023 artean industriako enpresen irabaziak % 53,4 igo dira eta KPIa % 24,4, baina soldatak, % 16,9; eta Europak gutxieneko soldata batez bestekoaren % 60 izatea gomendatzen duenez, hemen 1.600 eurokoa izan beharko litzateke. Helburu hori lortzeko asmoz, 2026rako lehen pausoa eman nahi dute eta gutxieneko soldata 1.500 euroan ezarri.

Greba zertarako?

Sindikatuak nabarmendu dutenez, gutxieneko soldata 1.500 eurora igotzeak eragin positiboa izango luke soldaten bilakaeran oro har, eta bereziki onuragarria litzateke kolektibo ahulentzat, hala nola gazteentzat, emakumeentzat edo lan prekarioan ari direnentzat.

Euren berbetan, neurri hori hartzeak arrakala marxista eta arrazistak murrizteko balioko luke, baita soldata guztiak gorantz bultzatzeko ere, enpresaz enpresa eta sektorez sektore soldatak hobetzeko, gutxieneko pentsioa eta prestazioak igotzeko, sortzen dugun aberastasuna modu justuagoan banatzeko, soldatak (eremu pribatuan zein publikoan) hemen erabakitzeko eta, horrekin lotuta, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak gutxieneko soldataren eskumenak eskuratzeko.

Mobilizazioak goizean eta arratsaldean

Grebaren bidez presioa egin nahi diete bai patronalari bai erakunde publikoei, negozioz bidez ireki ditzaten. Sindikatuen ustez, orain arte egindako proposamenek ez dute beharrezko erantzunik jaso, eta gutxieneko soldata propioari buruzko eztabaida instituzionala blokeatuta dagoela salatu dute. Horregatik, mobilizazioa tresna gisa ulertzen dute egoera aldatzeko eta eztabaida politikoa berriro mahai gainean jartzeko.

Greba orokorraren deialdiak hainbat gizarte eragileren babesa ere jaso du. Azken asteetan, sindikatuarekin batera, hainbat kolektibo eta herri mugimendu batu dira ekimenarekin, lan-baldintzak eta bizi-baldintzak hobetzeko neurriak beharrezkoak direla aldarrikatuz. Era berean, Eibarren bezala, tokian tokiko greba batzordeak antolatzen ari dira mobilizazioa indartzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko.

Greba egunean mobilizazioak eta manifestazioak egingo dira Euskal Herriko hainbat herritan eta hiri-buruetan, eta antolatzaileek lan jarduera "ahalik eta gehien gelditzera" deitu dute. Goizean, Gasteizen, Bilbo, Donostian, Iruñean, Tuteran eta Eibarren egingo dira mobilizazioak, eta arratsaldean herri bakoitzean.

Eibarren antolatuko diren ekintzen eta ordutegien inguruko informazioa laster zehaztuko dute eta Instagrameko @m17eibarkogrebabatzordea kontuan emango dute horien berri.



Eguaztenean eman zituzten martxoaren 17ko grebaren nondik norakoak deialdia egin duten sindikatuak. EKHI BELAR



OSKAR ARANTZABAL

Kritika antzerki jardunaldiei

Sarri baino sarriagotan entzun (eta esan) dugu “izan ala ez izan” (edo, nahiago baduzue, alderantziz, burezurrak gorabehera), berriki modan jarri zaigun Hamlet ezagunetik hartua.

Txikitatik ama plaentxiarrak transmititu zidan antzerkizaletasun eibartarra eta 1982an elkarrekin joan ginen orduko Teatro Amayara Albert Camus, Literaturako Nobel saridun frantziarrak, idatzitako *Los Justos* ikustera. Hamalau urte besterik ez nituen, baina ondo iltzatuta geratu zitzaidan, Euskal Herrian “berunezko urteak” bizi genituen haietan, anarkista talde errusiar bat tirania zaristaren kontrako atentatu bat prestatzen ari zelarik, gogoeta etiko guztiekin. Amaieran eztanda bat, irekian utziz zer (edo zer ez) gertatu zen. Antzerkia beti izan da gatazkagune.

Azken bi edizioen errepasoa egite aldera: 2024an 24 emanaldi burutu ziren, horietatik 7 euskaraz. 2025ean beste horrenbeste (azken edizio honi naftalina usaina zerion, gai “kasposoak”: siglo de oro español, Fraga Iribarne... gazteak uxatzeko modukoak!) eta horietatik 6 besterik ez euskaraz. Aurtengoa, bidean dena, bide beretik. Baike esan dezakegu, euskararen lekuari dagokionez, %29, %25 eta %27koaren bueltan izan(go) direla, hasierako solasaldirik inoiz ez. Ikus dezagun asko ala gutxi den.

Eibarko Udalak emandako datuen arabera, geure herrian euskararen ezagutza %54koa ei da. Kontuan

izan, aldeak alde, EAEn 2025eko programazio kulturala %40ean euskaraz izan zela. Eta Donostian, antzerako datu soziolinguistikoekin (%46ko ezagutza), 2024ko neguko denboraldian eta antzerki profesionalari dagokionez, %40 izan zirela euskaraz programatutako antzezlanak. Deigarria oso, batezbesteko ikusle kopuruak antzerakoak direla bi hirietan (250 euskarazkoetan eta 350

"Kontua ez da kuotak jartzea, baina normalizaziorako bidean euskararen presentzia indartu beharrean gaude"

erdarazkoetan). Zergatik azpitiko desproporzio nabarmen hori euskarazko programazioan Eibarren? Kontua ez da kuotak jartzea, baina normalizaziorako bidean euskararen presentzia indartu beharrean gaude. Iaz Miñan moduko lan batek, euskara hutsez eta immigrazioaren gai unibertsala harturik, 30.000 ikusle bildu zituen Euskal Herri osoko aretoetan (behin batean Eibarren).

Txalagarria deritzogu haur antzerkiari (gaur-gaurkoz programazioaren %80 inguru), harrobia lantze horretan etorkizuneko antzerkizaleak eraikitzeari; baina beraiei eskainitako tarte kuantitatiboa zabaltzearekin batera; badira, Debabarrenako Antzerki Plataforma sortzeaz gain (Debagoienan badutena), kualitatiboki ere egin daitezkeen jauziak.

Duela pare bat urte, EHAZE (Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte) eta Zurriola Ikastolaren eskutik (gogoan izan Unibertsitate Laboraleko garaietan afizionatuen izpirituari emandako lekua), ahoz eta idatziz proposatu genion Eibarko Kultura Sailari antzerkiaren historiako klasiko bat, Samuel Becketten Godoten esperoan, absurdu zoragarria (2023ko azaroan arrakastaz oholtzaratua Donostian), eta ondoren modan jarri berri den ikusle-kluba (literaturan egiten den irakurle-klubaren antzerakoak). Oraindik ere erantzunaren “esperoan” jarraitzen dugu...

Debabarreneko enpresak, makina-erremintaren munduko erakusleihoan

Testua **ANA AIZPURUA RUBIO**

Sektorearentzat hitzordu estrategikoa da, eta Debabarreneko enpresa askok bi urtez behin agendan gorritz markatzen duten ekitaldia. Batzuk erakusketari gisa, beste batzuk bisitari profesional gisa, baina gehienentzat aukera bera da: berrikuntza ikustea eta merkatuaren norabidea neurtzea. Debabarrena eskualdetik 25 enpresa inguruk hartuko dute parte erakusketari bezala aurtengo azokan (ikusi zerrenda).

Martxoaren 2tik 6ra bitartean egingo da Makina Erremintaren Nazioarteko Biurteko (BIEMH) azoka Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-n (BEC), industria-sektoreko hitzordu nagusietako bat dena. Bi urtez behin antolatzen den nazioarteko azoka honek makina-erremintaren eta fabrikazio aurreratuaren arloko azken berrikuntzak erakutsiko ditu.

BIEMH industriako profesionalentzat soilik den topaketa da, eta

automozioa, aeroespaziala, metalurgia edo ekipamendu-ondasunen sektoreetako ordezkariak bildu ohi ditu. Antolatzaileen arabera, erreferentziatzeko azoka da bere espezialitatean eta Europako hirugarren garrantzitsuena. Bertan, sektoreko fabrikatzaile, inportatzaile eta banatzaile nagusiak elkartuko dira, makineria, tresneria, osagai eta automatizazio-soluzio berrienak aurkezteko.

Aurtengo edizioak arreta berezia jarriko du robotikan, automatiza-



Azoka AFM, AIMHE eta BEC erakundeek antolatzen dute. BECeko sei pabiloi beteko ditu ekitaldiak eta 30 herrialde inguruko 1.500 erakusketari egongo dira bertan.



"Beharrak aldatzen joaten dira, eta erronka berri horien aurrean behar bezala erantzutea da gakoa"

zioan eta digitalizazioan, ekoizpen-prozesuen eraldaketan funtsezko arloak baitira. Azokan, gainera, makina handien zuzeneko erakustaldi teknikoak ikusteko aukera egongo da, industriako profesionalentzat balio erantsi handiko esperientzia eskainiz.

URKUNDE: Bezero eta lagunekin biltzeko aukera

Mendaroko Urkunde enpresak aurtan ere parte hartuko du Makina Erremintaren Bienalean. Ibon Gorosabel enpresako ordezkariak azaldu duenez, azokak balio han-

dia du enpresarentzat: "Azoka oso garrantzitsua da Urkunderentzat, bezero eta lagunekin biltzeko aukera oso ona delako eta bertan gure azkeneko berrikuntzak erakusteko aukera paregabea eskaintzen digulako". Enpresaren ustez, halako topagunek harreman sarea indartzeko eta merkatuarekin zuzenean konektatzeko balio dute bereziki. Aurtengo edizioari begira, Urkundek produktu-eskaintza zabaldu du industri konektagarritasunaren esparruan. Bereziki azpimarratu dituzte kableak garraiatzeko kateak eta sistema modularrak –Energi

Kit izenez ezagunak–, baita kableen arloan aurkeztuko dituzten berri-tasunak ere.

Sektorearen egungo egoerari dagokionez, enpresak ziurgabetasuna sumatzen du testuinguru geopolitikoaren ondorioz. "Egoera geopolitikoa oso nahastua dago eta horrek zailtasunak ekartzen dizkie gure bezeroei esportatzerako orduan", adierazi du.

Etorkizunera begira, Urkunderen erronka nagusia argi du enpresak: bezeroen behar aldakorrei erantzun egokia ematea. "Erronka beti bera da: bezeroen beharrei aurre egiteko



1. PABILOIA
E24 STAND-A



www.tekniker.es marketing@tekniker.es



2. PABILOIA
F40 STAND-A



www.innocut.es innocut@innocut.es

ahalik eta soluzio aproposenak eskaintzea. Beharrak aldatzen joaten dira, eta erronka berri horien aurrean behar bezala erantzutea da gakoa; bezeroen asebetetzea da helburua", ondorioztatu du Gorosabelek.

INNOCUT: Sektorearekiko konpromisoa sendotzen

Ermuko Innocut enpresak aurtan seigarren aldiz jarrera parte hartuko du Makina Erremintaren Bie-nalean, ZCC-CT bazkide komertzialarekin batera. Enpresak nabarmendu du hitzordu honek sektorearekiko duen konpromisoa sendotzen duela, bereziki txirbil-harroketa bidezko mekanizazioaren esparruan.

Azokan, ebaketa-erremintetako berrikuntzak aurkeztuko dituzte, bezeroengana eta lankidetzaren berrietara gerturatzeko helburuarekin. Aurtengo joerei dagokionez, enpresak erreminta eraginkorrago eta iraunkorragoen aldeko apustua egin du, mekanizazio adimendun eta automatizatueta integratzeko gai direnak. Era berean, gero eta garrantzitsuagoak dira energia-eraginkortasuna eta kostuen optimizazioa; ildo horretan kokatzen dira Innocuten azken garapenak, errendimendu handia prezio lehiakorretan eskaintzera bideratuak.

Etorkizunari begira, Innocuten erronka nagusia bere tamaina bikoiztea da, hazkunde organikoa eta erosketaren estrategikoak uztartuz –lehen erosketaren itxiera gertu dutela aurreratu dute–. Aldi berean, hornitzaileen dibertsifikazioan eta balio erantsi handiko sektoreetan hazten jarri dute fokua, bereziki aeronautika, energia eta ekipamendu-ondasunen merkatuetan, hazkunde jasagarria bermatzeko.

DEBABARRENEKO ENPRESA PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA

ALTEYCO SYSTEM S.L. (ITZIAR)
BLUM-NOVOTEST IBERICA S.L. (ERMUA)
COMETEL S.A. (ELGOIBAR)
DANOBAT GROUP S. COOP. (ELGOIBAR)
EGASCA S.A. (EIBAR)
ELESA-GANTER IBERICA S.L. (SORALUZE)
FERRETERIA UNCETA S.A. (ELGOIBAR)
GEMINIS LATHES S.A. (ELGOIBAR)
GER MAQUINA-HERRAMIENTA S.L. (ITZIAR)
GURUTZPE TURNING SOLUTIONS S.L. (ITZIAR)
HERVEL ELECTROQUIMICA S.L. (ERMUA)
IDEKO S. COOP. (ELGOIBAR)
INNOCUT S.L. (ERMUA)
JAZ ZUBIAURRE S.A. (EIBAR)
MACHINE TOOL ENGINEERING S.A. (ITZIAR)
MAKEGI S.L.U. (ITZIAR)
METROLOGIA SARIKI S.A. (ELGOIBAR)
MOSNIC-IRUDEX (ITZIAR)
PNEUMAX S.A. (ELGOIBAR)
SERKIDE INTEGRAL SERVICES SL (ITZIAR)
SMART PROCESS MANAGEMENT S.L. (ELGOIBAR)
TECNIFUELLE (ITZIAR)
TEKNIKER FUNDAZIOA (EIBAR)
URKUNDE S.A. (MENDARO)

Iturria: Makina Erremintaren Fabrikatzaileen Elkarte



Expertos en conectividad industrial

6. PABILOIA
E41 STAND-A



www.orkunde.es orkunde@orkunde.es



MILLING MACHINES

2. PABILOIA
E30 STAND-A



www.mtemachine.com info@mtemachine.com



TEKNIKER: Merkatu estrategikoetan sendotzeko aukera

Makina Erremintaren Biurtekora joatea ez da erabaki puntual bat Teknikerrentzat, baizik eta denboran zehar sendotu den apustu estrategikoa da. Fabrikazio aurreratua-ren arloan Espainian eta European erreferentziatzeko hitzordu historikotzat jotzen den azoka Euskadin bertan ospatzeak, gainera, garrantzi berezia ematen dio parte-hartzeari.

Zentro teknologikotik azpimarratzen dutenez, haien presentziak sektorearekiko konpromiso irmoa du oinarri. “Urte asko daramatzagu erakusketari gisa parte hartzen, topagune estrategikoa delako. Gure helburu nagusia merkatuan dugun presentzia indartzea, gure soluzioak ezagutaraztea eta bezero zein profesionalekin harreman zuzena izatea da”, azaldu dute.

Bienala, horrenbestez, lehen mailako erakusleio gisa finkatzen da posizionamendua eta ikusgarritasuna sendotzeko. Baina haren balioa harago doa. “Funtsezko plataforma da negozio-aukera berriak identifikatzeko eta merkatu estrategikoetan dugun posizioa indartzeko”, nabarmendu dute, ekitaldiaren nazioarteko dimentsioa azpimarratuz.

Aurtengo edizioan, sensorika kuantikoa izango da protagonista nagusietako bat. Teknikerrek diamentezko NV zentroak idazteko

"Makina-erremintaren sektorea une konplexuan dago, nahiz eta aukerak ere ugariak izan"

sistema bat aurkeztuko du, bere zentro teknologikoan osorik garatutako ekipoa. “Mugarri garrantzitsua da, sentore integratuen belaunaldi berri bati atea irekitzen baitio; gailu konbentzionalek baino sentsibiltate handiagoz prozesuak monitorizatzeko gai diren gailuak dira”, adierazi dute.

Halako teknologia bat lehen mailako azoka-ingurune batean balioan jartzea, onartu dutenez, “erronka handia eta inpaktu handiko berrikuntzaren aldeko apustu argia” da.

Azokako presentzia ez da horretara mugatuko. Robotika kolaboratiboaren malgutasunarekin, industrializazio digitalaren garrantziarekin eta ohikoak ez diren substratuetan inprimatutako elektronikaren funtzionaltasunekin lotutako hainbat erakusgarri ere aurkeztuko dituzte, zentroak garatzen jarraitzen duen gaitasun teknologikoen erakusgarri.

Testuinguruari dagokionez, makina-erremintaren sektorea une konplexuan dago, nahiz eta aukerak ere ugariak izan. 2025ean 2.200 milioi eurotik gorako fakturazioa sendotu ondoren, sektoreak uzkurdura arina izan zuen aurreko urtearekin alderatuta, eskari globalaren hegazkortasunaren eta nazioarteko lehiaren presioaren ondorioz. Hala ere, eskaeren hazkundeak neurri batean konpentsatu du egoera hori, eta enpresa askori lan-karga eta epe ertaineko ikusgarritasuna bermatzen dizkie.

Datozen urteetara begira, Teknikerrek argi ditu erronka nagusiak: arlo estrategikoetan —fabrikazio aurreratua, doitasunezko ingeniaritza, mekatronika, material eta gainazal aurreratua eta teknologia digitalak— duen maila teknologikoari eustea eta indartzea. Horri gehitzen zaio teknologia emergenteen espezializazioa sendotzeko helburua, hala nola kuantikan, sare elektrikoaren digitalizazioan edo gainazal funtzionaletan.

Ziurgabetasun globaleko testuinguruan, malgutasuna giltzarri izango dela diote. “Gure teknologiak bezeroen beharretara eta haien merkatuek eskatzen dituzten etengabeko alaketetara egokitze-ko gaitasuna funtsezkoa izango da”, nabarmendu dute.

Azkenik, talentuaren kudeaketa ere lehentasunezko ardatza da. Ikertzaileen prestakuntza eta etengabeko espezializazioa indartzea giltzarritzat jotzen dute, eta, aldi berean, osasunaren, espazioaren eta zientziaren industrietako sektore estrategikoetan presentzia handitzeko asmoa agertu dute, beren gaitasun teknologiko aurreratu eta berritzailei balioa emanez.



etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren eta inguruetan etxebizitza bilatzea gero eta erronka handiagoa da familientzat, gazteentzat eta bizi-proiektu berria hasi nahi dutenentzat. Bizi-kostuaren igoerak, finantzaketa baldintzek eta eguneroko gastuek etxebizitza eskuratzeko aukerak murriztu dituzte. Testuinguru horretan, informazio argia eta erabakiak lasaitasunez hartzeko tresnak izatea inoiz baino garrantzitsuagoa bihurtu da.

Gehigarri honen helburua da etxebizitzaren inguruko egungo egoera modu ulerterrazean azaltzea: zein joera dauden, zer nolako etxeak aurki daitezkeen, zein erronka nagusi sortzen diren eta zer aukera irekitzen diren herrian zein inguruko udalerrietan. Helburua lagungarria izatea da, irakurleak bere egoerara egokitutako ikuspegi praktikoa izan dezan.



www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29

Produktu hauek Aukera Inmobiliariakoak dira ESKLUSIBAN

 Barrena Ref. 3001 2 logela. Igogailua eta trastele- kua. Bizitzera joateko. 149.000€	 Tiburzio Anitua Ref. 2842 2 logela. 33,60 m² terrazarekin. Guztiz jantzia. Bizitzera joateko. 140.000€	 Errekatzu Ref. 2807 2 logela. Igogailuarekin. EIT pasatuta. 125.000€	 Bidebarrieta Ref. 2888 4 logela. Igogailua kota 0. Portala berriztua. Erreformatzeko: 250.000€
 Bista Eder Ref. 2961 2 logela. Kalefakzioa eta igogailua. Guztiz berriztua eta jantzia. Bizitzera joateko 217.000€	 Ubitxa Ref. 2971 3 logela. EIT pasatuta. Kalefakzioa eta igogailuarekin 182.500€	 Estaziño Ref. 2984 3 logela. Bi komun. Altua eta argitsua, bistekin. Igogailua kota 0. 329.000€	 Toribio Etxebarria Ref. 2974 3 logela. Bi komun. Igogailua. Kalefakzioa Estreinatzeko. 299.000€ (BEZ-ari lotutako prezioa)

Etxebizitzen salmenta Eibarren

Etxebizitza bat saltzea erabaki garrantzitsua da beti, baina are gehiago gurea bezalako herri batean, non merkatuak bere ezaugarri propioak dituen. Eibarren, eskaintza eta eskaera etengabe mugitzen dira, eta kokapenak, eraikinaren adinak eta irisgarritasunak pisu handia dute prezioan eta salmentaren abiaduran.

Azken urteotan, etxebizitzaren prezioek egonkortasun joera izan dute, baina alde nabarmenak daude auzo batetik bestera. Erdialdean edo zerbitzuetatik gertu dauden etxebizitzek interes handia pizten dute, eta igogailua bezalako elementuek balio erantsia ematen diote etxebizitzari. Bestalde, erreforma behar duten etxeek ere badute merkatua, batez ere gazteen edo inbertsore txikien artean.

Prezioa ondo jartzea, lehen urrats erabakigarria

Salmenta arrakastatsu baten oinarria hasierako prezio egokian dago. Askotan, jabeek balio emozionala gehitzen diote etxebizitzari, baina merkatuak bere logika propioa du. Eibarren azken hilabeteetan itxitako eragiketak erreferentzia hartzea eta inguruko antzeko etxebizitzekin alderatzea funtsezkoa da. Hasieratik prezio errealista jartzeak bisita gehiago erakartzen ditu eta salmenta epeak laburtzen laguntzen du.

Kudeaketa eta segurtasuna

Salmenta prozesuak dokumentazio zehatza eskatzen du: energia ziurtagiria, jabetza erregistroko datuak, kargen egoera... Gainera, erosleekin negoziatzea eta eskaintzak aztertzea ez da beti erraza izaten. Prozesu osoan segurtasuna eta gardentasuna bermatzea ezinbestekoa da.



Herriko profesionalen garrantzia

Tokiko higiezinaren agentziek Eibarko merkatuaren ezagutza zuzena dute: zein auzotan dagoen mugimendu handiagoa, zein profil dabilen etxebizitza bila eta zer prezio-tarte diren errealistak. Gertutasunak eta harreman sareak ere asko laguntzen dute salmenta prozesua arintzen.

Azken finean, etxebizitza bat saltzea ez da iragarki bat jartzea soilik; estrategia, ezagutza eta konfiantza behar dira. Informazio egokia eta laguntza profesionalarekin, prozesua errazagoa eta seguruagoa bihurtzen da.



F. Calbeton, 22-24

LARRAGEST

AGENCIA INMOBILIARIA

697 258 966 943 200 012

*Eibarko zure
konfiantzazko
inmobiliaria*

Gazteen emantzipaziorako laguntzak

Gaztelagun gazteen emantzipazioa errazteko alokairurako dirulaguntza da, Eusko Jaurlaritzak sustatutakoa. Helburua da alokairuaren merkatuan sartzea erraztea eta etxebizitza egokia izateko aukera ematea gazteei.

Norentzat da?

- 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat.
- Euskadin erroldatuta daudenentzat.
- Alokairuko etxebizitza batean bizi direnentzat.

Zenbatekoa?

- Gehienez 300 euro hilean (gaur egungo muga).
- Laguntzak hileko alokairuaren %60raino estaltzen du.
- 2026rako aurrekontua handitu egin da, eta onuradun kopurua 9.500 gaztera iristea aurreikusten da.



2026ko berrikuntzak

- Gaztelagun programaren aurrekontua %15 baino gehiago handitu da (28 milioi euro ingurura).
- Etxebizitza Sailaren aurrekontu orokorra ere igo da 2026an.
- Eremu "tentsionatueta" baldintzak eta mugak handitzeko azterketa egiten ari dira.

Beste laguntza osagarri batzuk

- Bizigune: etxebizitza hutsak alokairu babestura bideratzeko programa (ez da dirulaguntza zuzena, baina alokairu eskuragarria lortzeko bidea da).
- Gazteentzako zuzkidura-bizitoki berriak eraikitzen ari dira 2026an.



www.kotainmo.com

info@kotainmo.com

943 20 15 80

Bidebarrieta, 1



			
Julian Etxeberria Ref.232 4 logelako etxebizitza zabala, bista irekiak. Terrazarekin. 350.000€	T. Etxebarria Ref.157 3 logela, 2 komun. Berriztua. Bista irekiak eta oso eguzkitsua. 395.000€	Arragueta 3 gela. Pisu altua, eguzkitsua, balkoiarekin. Igogailua kota 0. 178.000€	Errekatxu Ref.242 Pisu altua. Berrizteko. Igogailua. 99.000€
			
Asola-Igartza Ref.137 3 logela, 2 komun. Bista irekiak eta eguzkitsua. Garajea. Terrazarekin. 189.000 €	T. Etxebarria Ref.102 Erdigunean 2 logelako ganbara. Argitsua eta eguzkitsua. 130.000 €	Untzaga Ref.184 2 logela eta 2 komun. Berriztua. Bista irekiak eta eguzkitsua. 240.000 €	San Juan Ref.112 2 logela, balkoiarekin. Berrizteko. Igogailua kota 0. 154.000 €

Etxebizitza aldatzeko orduan kontuan hartu beharrekoak

Etxea saldu ala lehenik erosi?

Bi aukera nagusi daude: lehenik saltzea eta gero erostea seguruagoa da ekonomikoki, baina baliteke aldi baterako etxebizitza behar izatea. Lehenik erosi eta gero saltzea erosoagoa da logistikan, baina finantza-presio handiagoa dakar. Askotan, egokiena bi prozesuak ahalik eta ondoen koordinatzea izaten da.

Etxea bilatu eta azterketa egin

Etxebizitza bat aukeratzen denean, ezinbestekoa da hainbat alderdi ondo begiratzea erabakia hartu aurretik. Garrantzitsua da etxeak karga edo zor posibleak dituen egiaztatzea, komunitateko gastuak zein diren jakitea eta eraikinaren egoera teknikoa (ITE edo antzekoa) aztertzea. Era berean, komeni da orientazioa eta argitasuna baloratzea, baita inguruko zarata-maila eta auzoaren giroa ere. Gomendagarria da etxea behin baino gehiagotan bisitatzea, eta ahal bada eguneko ordu desberdinetan, benetako egoera hobeto ezagutzeko.

Eskaintza eta kontratuak

Saltzailerekin ados jartzen zarenean, ohikoa izaten da erreserba edo seinale-kontratua (arrasak) sinatzea, eragiketa bermatzeko. Une horretatik aurrera,



hipoteka tramitatzen hastea eta notariotzako eskritura prestatzea dagokio erosleari. Kontuan hartu behar da etxebizitza erostea ez dela prezioa bakarrik ordaintzea: badira gastu gehigarriak ere, hala nola BEZa edo ITP zerga, notariotzako gastuak eta erregistrokoak, besteak beste.

Hipoteka aukeratu ondo

Hipoteka hautatzea erabakigarria da epe luzera. Horregatik, komeni da hainbat bankuren eskaintzak lasai konparatzea. Bereziki begiratu behar zaio interes motari (finkoa, aldakorra edo mistoa), komisiioei, lotutako produktuei (aseguruak, txartelak...) eta amortizazio baldintzei. Garrantzitsuenak: ez geratu lehen eskaintzarekin; denbora hartu eta aukerarik egokiena bilatu.

 SORALUZE INMOBILIARIA 611480198	– Etxebizitzak eta lokalak bilatzen ditugu Eibar, Ermua eta Gipuzkoa osoan – Zure etxea salduko dugu 1-3 hilabetetan – Bezero zerrenda luzea dugu – Ez-ordaintze aseguruak gaur egungo kontratuentzat – Pisuak saltzen ditugu inkilinoarekin	OSCAR SOUSA (INMUEBLE-AGENTEA) Errebal, 15 –EIBAR– inmosoraluze@outlook.es www.inmosoraluze.com
---	---	--



Errebal, 20 943 203 333 www.inmoarregi.com



Isasi, 16-behea. Tel: 943 82 05 10
Marques Valdespina 12 ERMUA



Liga amaituta, Kopa hasiko dute futbol zaletuan

E.B. Futbol zaletuaren liga amaierara iritsi da asteburuan. 16 jardunaldi jokatu ondoren, Malape Taberna izan da txapelduna, baina hori bagenekien azken jardunaldia jokatu aurretik.

Bigarren postua jokoan zegoen, baina Bergara Pneumatikoak taldeak ez zuen zalantzarako aukerarik eman eta Baserri azken sailkatua jipoitu zuen, 11-2. Horrela, azken talde horrek punturik gabe amaitu du denboraldia, partidu guztiak galdu baititu.

Ez da jardunaldi honetan gol askorekin amaitu den neurketa bakarra, Adahi Etxegik 0-10 irabazi baitzion Bar Maremi.

Liga amaituta, Kopa txapelketari ekingo diote datorren asteburuan futbol zaletuko taldeek, ligako formatuari eutsiz.

Hauek izango dira neurketak: Kalaka Buenos Aires – Limpiezas Rueda, Bar Marem – Malape Taberna, Bergara Pneumatikoak – Baserri eta Xania Taberna – Adahi Etxegi. Garajes Garciak atsedena hartuko du.

Eibar B xake taldeak beste garaipen bat lortu du Gipuzkoako Txapelketan

E.B. Deporrekoko xake batzordeko taldeek Gipuzkoako Taldekako Txapelketan jarraitzen dute lehia burubelarri. Hirugarren mailan jokatzen duen Eibar B-k dihardu izaten denboraldi honetako talderik onena eta asteburu honetan berretsi du hori, beste garaipen bat lortu baitu, 4-0, Zaleak B taldearen aurka.

Bere mailan jokatzen duen Eibar C-k, osterara, ezin izan zuen aurreko

jardunaldiko emaitza positiboa atera eta 1-3 galdu zuen Agustin de Leiza C taldearen aurka.

Lehen mailan diharduen Eibar A-k ere galdu egin zuen, bere kasuan 0,5-3,5 Fomento Culturalen aurka.

Hurrengo jardunaldian, Eibar A-k Gros C-ren aurka jokatuko du, Eibar B-k Domusa Teknik Azpeitiaren kontra eta Eibar C-k Goierri B izango du arerio.

Brontzea Martinez eta Mendyrentzat

E.B. Euskadiko Atletismo Federazioak antolatutako 16, 18 eta 20 urtez azpikoen pista estaliko txapelketa jokatu zen Donostiko Belodromoan, eta Eibarko Klub Deportiboko bost atleta aritu ziren lehia.

Nora Martinez U20 mailako 1.500 metroko proban hirugarren sailkatu zen 4:59.84ko markarekin, bere marka pertsonala hobetuz. Sonia Mendy, berriz, U16

mailako pisu jaurtiketan izan zen hirugarren 8,74 metroko jaurtiketarekin, kasu honetan ere marka pertsonala hobetuta.

Beste hiru ordezkariak dagokienez, Naia Astigarraga 60 metroko proban lehiatu zen U16 mailan, Maialen Cenarruzabeitiak 60 metro hesiak eta luzera jauzia egin zituen U18 kategorian, eta Elene Beitiak 60 eta 400 metroko probetan parte hartu zuen maila berean.





Urbat-ek hirugarren postua berreskuratu du

E.B. Leioa WP C-ri egindako bisi-tatik garaile itzuli zen emakumez-koen Euskal Ligan jokatzeko duen Urbat Urkotronik. Waterpolo talde eibartarrak oso denboraldi ona egi-ten dihardu eta, garaipen horrekin, sailkapeneko 3. postua berresku-ratu du. Gainera, aurretik dituen taldeak baino partiduko gutxiago jo-katu ditu oraindik eta gora begira jartzeko arrazoiak ditu.

Gizonezkoei dagokienez, 2. Na-zionaleko taldeak atsedena hartu du asteburuan eta Euskal Ligan joka-tzen duenak porrot gogorra jasan zuen Askartza B-ren eskutik (9-21).



Zapatu arratsalde borobila izan zen Eibar Eskubaloiairen talde nagusientzat

E.B. Eibar Eskubaloia klubeko lehen taldeek bata bestearen atzetik jokatu zuten zapatuam, otsailak 21, Ipurua kiroldegian. Lehenik, gizonezkoen txanda izan zen. Loyola izan zuten aurkari eta nagusitasun osoz gailen-du zitzairen, sailkapeneko hirugarren postua sendotuz. Orain, Ereintzari egingo diote bisita bihar, otsailak 28, 19:30ean.

Bigarren partiduan Zilarrezko Mailan diharduten emakumezkoek

jokatu zuten eta, eurak ere, garaile irten ziren. Eibartarrak azken lau partidukoak galduta iritsi ziren Camargoren aurkako lehiara, baina oraingoan bai, 19-16 irabazi zuten eta, Bera Bera-ren porrota apro-betxatuta, sailkapeneko 4. toki berreskuratu dute. Hurrengo par-tidua Zaragozako Alberto Maes-tro kiroldegian jokatuko du Eibar Eskubaloiak, bihar, otsailak 28, 18:00etan.



Iberdrola Ligara itzultzeko ametsak bizirik dirau Eibar Rugby Taldearentzat

E.B. Iberdrola Ligara igotzeko fasea bikain hasi du Eibar Rugby Taldeak. Final laurdenetako kanporaketa Atletico Portuenseraren aurka jokatu zuen asteburuan, Cadizen, eta nugu-sitasun osoz gailendu zitzaion, 0-24.

Eibartarrek heldutasunez egin zioten aurre neurketari eta euren erritmoa ezarri zuten hasieratik. Defentsa sendoa eta eraginkortasu-na erakutsi zuten eibartarrek, eta ez zioten aukerarik laga andaluziarrei.

Jashana Teuawiri izan zen pro-

tagonista nagusia, bi entsegu sar-tuta (3. minutuan eta 57.ean), eta Amaur Mayo Azkaratek eta Adara Alfonso Boubetak beste biak batu zituzten. Isis Touwek bi transfor-mazio lortu zituen. Garaipen ho-rrekin aurrera egin du Eibar Rugby Taldeak eta orain Turia talde in-dartsua izango du aurkari Valen-tzian jokatuko den final erdietako neurketan. Beste partiduan BUC eta Barça Rugby arituko dira nor baino nor.



Ipurua klubeko zenbait gimnasta podiumera igo dira Avilesen

E.B. Asteburu oparoa izan dute Ipurua gimnasia erritmiko klubeko gimnastek Avilesen (Asturias) jokatutako txapelketan. Lehiaketa maila handikoa izan da, eta eibartarrek berriro ere erakutsi dute egiten ari diren lanaren fruituak iristen ari direla.

Banakako oinarritzko kadete mailan, Nora Eizaguirrek bigarren postua eskuratu zuen, podiumera igota. Oinarritzko kadeteen taldeak, berriro, laugarren postua lortu zuen sailkapenean.

Bestalde, Nahia Arguizek txa-

pelketa orokorra irabazi zuen, jardunaldi bikaina osatuta: pilotan laugarren izan zen eta uztaiaren lehen postua eskuratu zuen. Arrate Basaranek ere emaitza aipagarriak lortu zituen, laugarren izan baitzen uztaiaren eta bosgarren zingolan.

Domekan, martxoak 1, Gipuzkoako I. Benjamin Topaketa egingo du Ipurua klubak kiroldegian. Horrela, 11:30etik 14:00etara gimnasia erritmikoa ikusteko aukera egongo da erdiko pistan. Eibarko klubeko sei taldek hartuko dute parte, 30 gimnasta inguruk.

Negutraila, domekan, Oihana Azkorbebeitiarekin

E.B. Domekan, Negutraila egingo da Mendi Jardunaldien barruan. Aurtengoan, Oihana Azkorbebeitia mendi-korrikalaria gonbidatu dute mendi-topaketa egiteko eta, ibilbidean zehar berari galderak egiteko aukera egoteaz gain, ondoren bazkaria egingo dute Depor tabernan.

Ibilaldia 08:30ean hasiko da Klub Deportiboaren egoitzaren aurretik eta bi ibilbide egiteko aukera egongo da, bata 13,5 km-koa eta bestea 14,34 km-koa, toki berean amaitzeko.

Mendi-irteera eguzkitsuz gozatu zuten haurrek

E.B. Joan den domekan, ikasturteko seigarren mendi-irteera egin zuten Eibarko haurrek. Giro zoragarriarekin ibili ziren gainera, eguzkiak eta tenperatura epelak lagundu baitzien bidean zehar. Horrela, asko gozatu zuten parte hartu zuten 69 haurrek, gurasoek lagunduta.

Hurrengo irteera, ikasturteko zazpigarrena, 2026ko martxoaren 15ean izango da: Ibilaldi Neurtua (Antzuola).


SD Eibar-ek Ipuruako indarrari heldu nahi dio Gaizka Garitanoren Cadizi aurre egiteko

E.B. Deportiboren aurka irudi ona eman arren, SD Eibarrek ezin izan zuen emaitza positiborik lortu etxetik kanpo, beste behin. Beraz, Ipuruan duen bolada onari heldu beharko dio puntuak lortu nahi baditu.

Hurrengo arerioa Gaizka Garitanok zuzentzen duen Cadiz CF izango du, domekan, 21:00etan,

Ipuruan. Azken sei jardunaldietatik bost galdu ditu talde andaluziarrak eta bestea berdindu egin du. Horrela, orain eibartarren atzetik daude sailkapenean.

F Ligako taldeak, bestalde, azken segundoan galdu zuen Athletic-en aurka eta orain atsedena hartuko du, geldialdia egingo delako selekzioen partiduengatik.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Cadiz (etzi, 21:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Gernika (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Zarautz (etzi, 12:30)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Euskalduna (bihar, 15:30)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Ordizia (etzi, 12:35)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

Betoño - EIBAR (etzi, 12:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

EIBAR B - Real Sociedad B (gaur, 19:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

Deusto - URKI (bihar, 18:15)

FUTBOL-ZALETUA

• Kalaka Bs. As.- L. Rueda (bihar, 09:00)

• Maren - Malape (bihar, 10:30)

• Bergara Pn. - Baserri (etzi, 09:00)

• Xania - Adahi Etxegi (etzi, 10:30)

• Atsedena: Garajes Garcia

ESKUBALOIA

Zilarrezko Maila (em)

Zaragoza - E ESKUBALOIA (bihar, 18:30)

1. Maila Nazionala (gi)

Ereintza - EIBAR ESKUBALOIA (bihar, 19:30)

Eskadiko Senior Txapelketa (gi)

E. ESKUBALOIA B - Donibane (bihar, 19:00)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

Usurbil - E. ESKUBALOIA B (bihar, 16:00)

SASKIBALOIA

Seniorren 1. Maila Maila (gi)

A. San Sebastian - A. JUANTXO (bihar, 20:00)

Seniorren 2. Maila Maila (em)

Luberri - EIBAR SASKIBALOIA (gaur, 19:45)

WATERPOLOA

2. Nazionala (gi)

URBAT - Nou Godella (bihar, 18:30)

Euskal Herria Liga (em)

URBAT - Sestao (etzi, 13:30)

Euskal Herria Liga (gi)

URBAT B - Lauro (gaur, 21:15)

Iruñea 9802 - URBAT B (etzi, 12:30)

Kirol albiste gehiago
gure webgunean



Domina zaparrada Eibar Igerixanekoentzat

E.B. Zarautzen jokaturako Gipuzkoako Neguko Sarian domina ugari eskuratu zituzten Eibarko igerilariak. Urrezko dominak lortu zituzten Nora Guineak (100 tximeleta), Izaro Onekak (50 bular eta 200 estilo), Nahia Martinezek (100 bular) eta Malen Pedrosak (100 bizkar); zilarrezkoak Edorta Onekak (50 bular eta 50 libre), Julen Canalesek (100 estilo eta 50 libre), Nahia Martinezek (50 libre) eta Jone Avellanedek (100 eta 200 estilo) eskuratu zituzten; brontzezkoak, berriz, Nora Gui-

neak (200 estilo), Julen Prietok (50 tximeleta) eta Ane Larrañagak (100 estilo).

Bestalde, Iruñeko Amaya kiroldegian jokaturako Euskal Herriko Neguko Junior eta Absolutu Txapelketan ere emaitza bikainak lortu zituzten. Paula Calvok hiru urrezko domina eskuratu zituen (200 estilo, 100 libre eta 200 bizkar), Jokin Oñeka nagusitu zen 400 estilo proban, Elaia Mujikak zilarra lortu zuen 200 librean eta Itsaso Castrillok bi brontze bereganatu zituen (200 bizkar eta 400 libre).

Pilota jaialdia hartuko du gaur Astelenak

E.B. Astelenako gaurko jaialdia 18:30ean hasiko da lau partidarekin. Hasteko, Saez eta Lizarralde infantilak Bergarako Gabilondo eta Urisabelen kontra ariko dira. Ondoren, Agote eta Arrieta infantilak Goierriko Arteta eta Larrañagaren aurka lehiatuko dira.

Federatuetan, Varona eta Del Rey jubenilek Oñatiko Errasti eta Rodriguez izango dituzte aurrez aurre; eta Ibarra eta Conde seniorrek Anoeta-ko Errazkin eta Labakaren kontra

jokatuko dute bi puntuen bila.

Etiket kanpo, Arriola eta Segurola Lazkaon lehiatuko dira, eta Segurola eta Urkiagak Ataunen jokatuko dute gaur. Arrasaten ariko dira Atxa eta Uriarte alebinak Tolosakoan aurka.

Paleta gomazkoan, Amas eta Bartolome Aiako udal pilotalekuan lehiatuko dira, eta eskuz binakako Gipuzkoako Txapelketan Narbaiza eta Aguirresarobe seniorrek Hernanin jokatuko dute.

“Gauza batek hainbeste ematen dizunean, ondorioak egon daitezkeela onartzen duzu”

MATTIN IÑIGUEZ • Mendizalea eta parapentelaria



Martxoaren 10ean, 19:00etan, Eibarko Klub Deportiboak antolatzen dituen Mendi Jardunaldien barruan, Mattin Iñiguez parapentelariak Red Bull X-Alps lasterketan bizitakoa kontatuko du Portalean: mendiko lasterketa eta parapentea uztartzen dituen muturreko erronka.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Japoniatik erantzun digu deia Mattin Iñiguez-ek. Urte sabatikoa hartu du eta aspalditik koadernoan apuntatuta zituen bidaia egiteko aprobetxatzen dihardu. Martxoaren 10ean Eibarren egingo du geldialdia eta bere kirolean murgilduko gaitu, ikus-entzunezkoa eskaintzeaz gain, berarekin solasaldia egiteko aukera egongo da-eta.

Japonian badago parapentean aritzeko ohiturarik? Bai! Hegaldiak egiteko zona bat ezagutu dut eta badago komunitate bat errotuta, hegan egiteko ohitura duena, Tokiotik ordu eta erdi edo bi ordura.

Zentzu horretan, polita da kirol hau egitea, ezta?

Toki batetik bestera joateko aukera ematen dizulako.

Bai, guztiz! Esango nuke azken aldian bidaia guztiak parapentean ibiltzeko egin ditudala. Japoniara elurretara etorri gara gehiago parapentean ibiltzera baino, baina hori du parapentea, gauzak deskubritzeko beste modu bat dela. Baldintzak betetzen direnean, ia toki guztietan egin daiteke hegan.

Zein baldintza bete behar dira parapentean ibiltzeko?

Parapentea oso kapritxosoa da baldintzekin. Tokiak baino, sasoiak edukitzen du garrantzia parapentean



aritzeko. Toki bakoitzak bere sasoi izaten du. Adibidez, udazkenean India izaten da toki aproposa, neguan Hego Afrika edo ekuatoretik gertuago dauden tokiak (Kenya, Kolonbia, Mexiko, Brasil...) eta uda gerturatzen denean ipar hemisferioa (Alpeak, AEB...). **Zuk, ostera, parapentea mendi-ibilaldiekin uztartzen duzu. Zertan datza hori?**

Nahiko kirol kurioso da gurea. Vivac hegaldia deitzen dioguna gustatzen zait niri. Hau da, hegan egiten duzun bitartean bidaia zea. Bizikletan zakutoekin bidaia zuten jendeak bezala, parapentean lotarako zakua, kanping-denda eta beharrezkoa sartzen dugu eta mendi batetik bestera joaten gara trabesiak eginez. Hori da modalitateetako bat.

Nolako bidaia izaten dira? Zenbat egiten da hegan, zenbat oinez...?

Sasoiaren edo tokiaren arabera, eta zorteak ere badu



Joan den udan Red Bull X-Alps lasterketan hartu zuen parte Mattin Iñiguezek.

zeresana. Izan ere, eguraldi ona tokatzen bazaizu, egun bakarrean ehun kilometrotik gora egin dezakezu hegan, baina eguraldi txarrarekin agian hegaldi txiki bat egiten duzu eta ia egun osoa oinez pasatzen duzu. Helburua ahalik eta gehien hegan egitea eta ahalik eta altuen lurreratzea izaten da, hurrengo egunean ondo kokatuta egoteko. Izan ere, normalean, vivac hegaldiak egiten ditugunean pisu handia eramaten dugu bizkarrean eta 20-25 kg-rekin ibilaldi luzeak egitea kosta egiten da. Beraz, mendiaren goiko aldean lurreratzen saiatzen gara, kanping-denda jarri, trasteak laga, ur bila jaitsi... Uraren kontua kudeatzea berebizikoa izaten da.

Azkenean, gauza asko hartu behar dira kontuan.

Abentura kutsu handia du honek. Planifikazioa egiten duzu, metereologia ikusi, eta hori toki guztietan ez da berdina. European eta beste zenbait tokitan oso informazio meteorologiko zehatza dugu, baina beste toki batzuetan ez dakizu hurrengo egunean zein eguraldi egingo duen. Orduan, ahalik eta goren egoten eta eki-aurpegia edukitzen saiatzen gara.

Zer esan nahi duzu eki-aurpegia diozunean?

Eguzkiarekin funtzionatzen dugu. Beraz, parapentean hegan egiten dugunean eguzkiak zuzen jotzen duen pareta bilatzen dugu. Pareta hori aldamenekoak baino gehiago berotzen bada, haize beroa botatzen du goraka. Orduan, putreak bezala ibiltzen gara 'termika' deitzen diogun haize-beroko poltsa horietan altuera hartzen eta batetik bestera mugitzen. Hori guztia bezperan kudeatu behar da: lurra non hartu, eta abar. Izan ere, hegan egiten duzunean aukera gehiago duzu toki batetik bestera joateko, baina lurra hartzen baduzu, hegan bost minutuko trantsizioa izango zena oinez sei orduko ibilaldia bihurtu daiteke... eta 20 kg bizkarrean dituzula! Horri aurrea hartzeak garrantzi handia dauka.

Zuretzat zer izan zen lehen gauza: mendi ibilaldiak ala parapentea? Nola iritsi zinen kirol horretara?

Menditik nator. Mendiko bizikleta, eskalada, alpinismoa... egiten nuen eta, mendian nenbilela, jendea hegan ikusi nuen eta probatzeko gogoia sartu zitzaidan. Hasieran, lagun bati 'BASE jauzia' egitera lagundu nion eta pentsatu nuen polita izan zitekeela mendia eskalatu ondoren horrela jaistea. Hegan egiteko giro

"Euskal Herrian asko igo da zaletasuna. Azken bost urteotan jende asko hasi da hegan. Eskaladaren mundutik jende asko pasa da parapentera"

horretan sartu nintzen eta ikusi nuen hegan egitea askoz ere gehiago zela. Hau da, bidaia eta distantzia luzeak egin daitezkeela hegan, eta horretara engantxatu nintzen: distantzia- eta mendi-hegaldiak egitera. **Euskal Herrian badago kirol hori egiteko ohitura eta zaletasuna?**

Euskal Herrian asko igo da zaletasuna. Azken bost urteotan jende asko hasi da hegan. Eskaladaren mundutik jende asko pasa da parapentera. Gainera, Euskal Herrian oso toki onak ditugu hori egiteko. Beraz, nahiko komunitate aktiboa dugu.

Eskaladatik parapenterako jauzi hori ematerakoan, nola ikasi zenuen hegan egiten? Bazegoen formakuntzarako aukerarik? Ez dakit, agian zu izan zara aitzindarietako bat.

Aitzindaria ez, ezta gutxiago ere! 80. hamarkadan Orduña inguruan ala-deltarekin hasi ziren batzuk, eta baita parapenterekin ere. Bazeuden Himalaiara joaten ziren batzuk ere, zortzimilakoak igo eta tontorretik hegan jaisteko. Gure belaunaldiak buelta eman dio horri eta, orain, ez gara tontorretik jaisten bakarrik, ahalik eta urrutien hegan egiten saiatzen gara. Materiala asko hobetu da, parapenteak demaseko eboluzioa izan du azken 10-15 urteetan eta orain parapenteek askoz ere efizientzia gehiago dute, distantzia luzeagoan hegan egitea ahalbidetuz. Beraz, kontzeptua aldatu egin da eta Euskal Herri mailan bide berriak zabaltzen ibili gara azken urteetan.

Gozamenerako aukera ematen du, baina badu bere alde arriskutsua ere. Nola bizi duzu hori?

Parapenteak duen alde txarra da akats bat oso garesti ordaindu daitekeela. Tamalez, segurtasunaren aldetik asko dugu irabazteko oraindik, batez ere guk, pilotuek. Akats bat egiten baduzu, ondorioak oso larriak izan daitezke eta, egia esan, nahiko estatistika beltzak ditugu. Proportzioan, parte hartzen dugun kirolari kopurua kontuan hartuta, istripu asko dago. Gehienak ez dira larriak izaten, baina badaude larriak ere. Azkenean, zerbait asko gustatzen zaizunean,



arriskuaz kontziente izan arren, egin egiten duzu. Nik neuk bi istripu izan ditut parapentearekin eta oso ondo geratu naiz, baina onartzen dutun arrisku bat da. Gauza batek hainbeste ematen dizunean, ondorioak egon daitezkeela onartzen duzu. Gauza txarrik gerta ez dadin ahalik eta neurri gehien hartzen dugu, formakuntzak jasotzen ditugu, simulazioak egiten ditugu eta arazoak daudenean nola erantzun praktikatzan dugu.

Martxoaren 10ean Eibarren izango zaitugu Red Bull X-Alps lasterketari buruzko solasaldian. Zer aurreatu dezakezu?

Joan den udan bizi izan dudana abentura oso potentea kontatzera joango naiz Eibarrera. Esan dudana bezala, menditik nator, baina azkenengo urteetan txapelketen munduan sartu naiz eta mundu mailan dagoen lasterketa garrantzitsuenetako batean parte hartzeko zortea eduki dut 'hike&fly' izeneko modalitatean. Bertan, mendi-lasterketak eta parapentea uztartzen dira. Alpeak alderik alde bi aldiz zeharkatzen dituen abentura lasterketa da, Alpeetako gailurreria lau aldiz gurutzatzen duena. Demaseko abentura da. Austria, Suitza, Alemania, Italia eta Frantzia gurutzatzen ditu, eta han ibili ginen bi astetan korrika eta hegan.

"ZORIONTSU EGITEN NAUEN

LEIRE GOMEZ

Eibarko eduki sortzaileak Instagramen eta TikToken bere egunerokoaren zatiak, moda eta lifestyle edukia partekatzen ditu, gero eta oihartzun handiagoarekin. Orain, gainera, euskarazko edukian ere pausoa ematen ari da.



Argazkietatik bideoetara jauzia eginda, Leire Gomez eibartarra sare sozialetan lekua egiten ari da pixkanaka. Bere gustuak, bizitzako momentu txikiak eta interesatzen zaizkion markak erakusten ditu, betiere ikuspegi pertsonal batetik. Segurtasun faltari aurre eginez, eduki sortzaile izatea gustuko duen zerbaitei buru da berarentzat, eta azkenaldian euskarazko edukiaren aldeko apustua ere egin du.

Duela gutxi hasi zinen Instagramen eta TikToken edukia sortzen. Nolatan?

Beti gustatu izan zait argazkiak, bideoak... edukia sortzea. Betidanik segurtasun gutxiko pertsona izan naiz, eta egun batean neure buruari esan nion: "Begira, niri gustatzen bazait, egin beharra daukat". Egun batetik bestera izan zen erabakia. Lehenago ere argazkiak igotzen nituen, baina bideoetara pasatzea erabaki nuen. Azken finean, zoriontsu egiten banau, zergatik ez?

Zure ikasketek badute loturarik eduki sortzaile izatearekin?

Bai, komunikazioa ikasten ari naiz. Gaur egungo digitalizazio garai honetan denok gabiltza sarean buru-belarri, eta horregatik uste dut nire ikasketek eta sare sozialek lotura zuzena dutela. Ez hainbeste klasean ikasten dugunarekin, baizik eta marketingaren inguruko munduarekin. Azkenean, sare sozialetan egiten dudana hori da: produktu bati, denda bati edo markari nire aurpegia jartzea. Oraindik nire mundua txikia da, ez daukat jarraitzaile askorik, baina poliki-poliki lanean nabil.

Nola deskribatuko zenuke zure mundu hori?

Ez dakit oso ondo nola azaldu. Instagramen eta TikToken munduak erabat desberdinak direla iruditzen zait. TikToken egiten dudanagatik jarraitzen nau jendeak, eta gainera, gehienak herritik kanpokoak dira. Instagramen, berriz, lotsa handiagoa ematen dit, nagusiki Eibarko jendeak jarraitzen naudelako.

Zenbat denbora daramazu edukia sortzen?

Gabonak baino lehen hasi nintzela esango nuke. Oso gutxi, egia esan.

"ZORIONTSU E

PARTEKATU?"

ZERBAIT BADA, ZERGATIK EZ PA

**Nola azalduko zenioke zure edukiaz ezer ez da-
kienari zer egiten duzun?**

Oso zaila egiten zait azaltzea (barreak). Duela gutxi, amamarekin kalean nengoela, neska bat hurbildu zitzaidan. Nire amamak ez du egiten dudanaren ideiarik ere. Zer egiten dudan galde-
tu zidan, eta ez nekien nola azaldu. Bideo batzuk egiten ditudala esan nion, eta berak galdetu zidan: “Bai, baina zeren ingurukoak?”. Gustatzen zaidan denda batera joaten banaiz, grabatu egiten dut; ja-

tetxe batera joan eta gustatzen bazait, ere bai. Nire gustuko gauzak, nire bizitzako momentutxoak... partekatzea gustatzen zait. Niri gustatzen zaidan horrek beste norbaiti balio badio, gordetzeko edo partekatzeko, primeran.

Nire bizitza sinplea dela esango nuke. Badira niretzat gordetzen ditudan gauzak, noski, baina beste batzuk partekatzea ez zait axola, besteren bati balio ahal badiote.

“Instagram eta TikTok munduak erabat desberdinak iruditzen zaizkit”

Lifestyle eta moda dira nagusi zure edukian.


Bai, hori da. Saiatu amama bati azaltzen zer den “lifestyle” edukia! (barreak). Eta bai, moda kontuak ere asko gustatzen zaizkit.

**Euskarazko edukia sortzen ere hasi zara due-
la gutxi.**

Bai, sarean jende asko ikusi dut euskaraz edukia sortzen, eta nik ere egin nahi nuen. Nire egunero-koan gaztelania asko entzuten dut, eta hori aldatu nahiko nuke. Nire edukia euskaraz izatea nahi dut, nire ustez modan dagoen ezer ez dagoelako euskaraz. Moda kontuez euskaraz hitz egiten duten eduki sortzaile oso gutxi daude; orain hasi direla esango nuke, eta oso garrantzitsua dela iruditzen zait. Euskal Herrian bizi gara, eta euskarazko eduki anitza egotea ezinbestekoa da.

Badirudi Euskal Herriko eduki sortzaileek molde jakin bat izan behar dutela.

Bai, erabat. Batzuetan oso “enkasillatuta” gaudela iruditzen zait, eta nik uste dut pixka bat aldentzen naizela marko horretatik. Horregatik, batzuetan zaila egiten zait bideo bat euskaraz igotzea; badi-
rudi bideo mota batzuek gehiago “eskatzen” dutela gaztelania. Baina hori ez da nik nahi dudana. Nire helburua da gaztelaniaz entzutera ohituta gauden eduki horiek euskaraz ere egitea.



RTEKATU?” “ZORIONTSU EGITEN NAUE

N ZERBAIT BADA, ZERGATIK EZ

“Maitatzeko moduak aldatzen dira, baina maitatzea beti dago ondo”

GETARI ETXEGARAI • Aktorea eta zuzendaria



La Mapatxa taldea sortu berri dute Mikel Losadak, Diego Pérezek, Olatz Ganboak, Unai Izquierdok eta Getari Etxegaraiak. ‘Loreen hizkuntza’ zortzi lorez edo koadro dramatiko osatutako komedia da, Ibon Belandiak konposatu eta interpretatutako zuzeneko musikaz lagundua, non ahozko tradizioko herri-kantak musika elektroniko bihurtuta berreskuratzen diren. Kantu horiek guztiek osagai bera dute: loreak norbait konkistatzeko estrategia gisa erabiltzea. Antzezlanaren martxoaren 1ean, domeka, ikusi ahal izango da, 19:00etan, UNIKO areto nagusian, Eibarko Antzerki Jardunaldien barruan.

Testua **ANA AIZPURUA RUBIO**

Proiektu honen bidez, bere ibilbidea abiatu du La Mapatxa Teatroak. ‘Loreen hizkuntza’ lan honetan aktore bezala aritzeaz gain zuzendaria ere bazara.

Bai, nik zuzendu dut. Ideia originala Unai Izquierdorena da; bera da gure konpainian dramaturgia lantzen duena. Hala ere, prozesua oso irekia izan da. Berak proposamena ekarri zigun eta testua guztion artean moldatu genuen, gure ukitu pertsonala emanez. Hasierean testua gogorragoa zen, eta komedia puntu bat gehitu genion, gai serio bati buruz hitz egin arren umorea galdu nahi ez genuelako. Horrela sortu zen gure lehenengo lana, ‘Loreen hizkuntza’.

Zergatik aukeratu duzue maitasun harremanen gaia?

Argi daukagu gai sozialez eta jendeari momentuan arduratzen zaizkion kontuez hitz egin nahi dugula. Gaur egun pil-pilean dago jendea ezagutzeko modu berrien gaia: sare sozialak, aplikazioak... Horren inguruan hausnartu nahi genuen. Maitasuna betikoa da, baina ezagutzeko moduak asko aldatu dira.

Eta hori guztia umorearen bidez kontatzen duzue.

Bai, umorea gure baitan dago. Egia da gaia konplexua izan daitekeela, baina guk beti diogu komedia konplexua dela egiten duguna. Ez da umore sinplea; badu bere buelta eta bere gogoeta.



Getari Etxegarai aktoreak zuzendu du antzezlanaren.



Lorcaren 'Doña Rosita la soltera o el lenguaje de las flores' obran ageri den itxaropenen gaia abiapuntu hartuta, XXI. mendeko maitasun-harremanak jorratzen ditu antzezlan honek, eta nola aldatu den ligatzeko prozesua azken urteotan.

Itxaropena aipatzen duzue abiapuntu bezala. Nola agertzen da hori eszenan?

Saiatzen gara bidean gauza asko gerta daitezkeela esaten, mina jaso daitekeela edo dezepzioak izan daitezkeela, baina denak balio duela ikasteko. Beti atera daiteke zerbait ona. Pertsonaiek bizipen oso desberdinak dituzte obran zehar, eta uste dut politena dela ikusle bakoitzak pertsonaia batekin edo bestearekin konektatuko duela.

Nolako publikoa espero duzue Eibarren?

Egia esan, denak dira ongietorriak. Hasieran uste genuen agian gazteagoentzat zela, hizkuntzagatik edo gaiagatik. Baina konturatu gara jende heldua ere oso interesatuta egon dela eta asko baloratu gaituela. Une honetan ezin dugu esan zein den gure publikoa: denak izan daitezke.

Zein izan da zure ukitu pertsonala muntaketan?

Askok gustatzen zait ikuslegoaren sentimenduekin jolastea. Ikusleak pentsatzea komedia bat ikustera datorrela, erlaxatuta egotea... eta bat-batean buelta ematea denari. Une batean barrea, eta hurrengoan drama-tragediara hurbiltzea. Buelta hori lortzea izan da nire helburu nagusietako bat.

Zure ustez, nola aldatu da maitasuna bizitzeko modua?

Lehen jendea aurrez aurre ezagutzen zen: tabernetan,

“Ikusle bakoitzak pertsonaia batekin edo bestearekin konektatuko du”

gaztetxeetan, kalean... Orain sareen bidez ezagutzen du elkar askotan. Profil baten atzean ez dakizu nor dagoen edo zenbat den egia. Horrek badu arriskua. Hala ere, ez dut ikuspegi pesimista izan nahi: jende askok harreman politak sortzen ditu horrela ere. Ez dugu itxaropena galdu nahi.

Zer mezu eramatea gustatuko litzaizuke etxera publikoak?

Maitatzeko moduak aldatzen ari direla, bai ligatzeko bai harremanak izateko moduak, baina itxaropenerako lekua badagoela. Maitatzea beti dago ondo, eta ateak ez dizkiogu inoiz itxi behar. Esperientzia txarrek ere balio dute ikasteko; dena ez da zuri edo beltz.

Musikak ere garrantzi handia dauka obran, ezta?

Bai, eta gainera zuzenean daukagu. Zoragarria da hori. Oholtzan bertan jotzen da musika eta ikusleak momentuan bizi du. Gainera, musikariak, Ibon Beldiariak, paper garrantzitsua dauka istorioan. Ikusentzunezkoek ere lekua dute Inés Bermejori esker.



XLIX ANTZERKI JARDUNALDIAK



EL PEOR ESPECTÁCULO DEL MUNDO. DE MOMENTO

Zanguango Teatro

KOMEDIA / 65'

Otsailak 27
(barixakua)

19:00

Uni-Eibar

Antzezlea: Txubio Fernández

Zuzendaria: Miguel Muñoz

Biopic zoro bat, errebaleko heroi batena, alproja batena. Mundura jaio zen, munduan denetik egon behar delako. Pieza komiko bat, norbait izaten saiatu arren, azkenean untxiena bezalako bizitza dutenei buruzkoa: arrastorik utzi gabe sastrakaz sastraka salto egin, eta, atzera begiratzean, eskopetekiko beldurra besterik ez dute ikusten.



HODEI GUZTIEN GAINETIK

Markeliñe

HAURRENTZAT / 65'

Otsailak 28
(zapatua)

17:00

Coliseo

Antzezleak: Maite Bayon eta Fernando Barado

Zuzendaria: Markeliñe

Hodei guztien gainetik antzezlanak bere lanaren errutinan harrapatuta, jolasteko plazera ahaztu duen aita lanpetu baten istorioa kontatzen du. Egun batean, zorabioa jasan ondoren, harrituta esnatzen da kaleko aingeru bat bizi den kartoizko hodeien artean. Pertsonaia magiko horrekin ezarritako harremanaren bidez, aitzak galdutako inozentziara bidaia hasiko du.



LOREEN HIZKUNTZA

La Mapatxa

DRAMA / 90'

Martxoak 1
(domeka)

19:00

Uni-Eibar

Antzezleak: Mikel Losada, Olatz Ganboa, Unai Izquierdo

Zuzendaria: Getari Etxegarai

Lorcaren Doña Rosita la soltera o el lenguaje de las flores obran ageri den itxaropenen gaia abiapuntu hartuta, XXI. mendeko maitasun-harremanak jorratzen ditu antzezlan honek, eta nola aldatu den ligatzeko prozesua azken urteotan. Zenbait egoeraren bidez, gogoeta egiten du gai horietaz, betiere umorearen ikuspegitik.



LA BARRACA

Teatro de Malta
Olympia
Metropolitana,
Pentación
Espectáculos

DRAMA / 90'

Martxoak 3
(martitzena)

19:00

Coliseo

Antzezleak: Daniel Albaladejo, Antonio Hortelano, Patricia Ross, Jorge Mayor. **Zuzendaria:** Magüi Mira

La barraca gaitzespen baten istorioa da; hain zuzen ere, Batiste Borrullen familiak Valentziako barraka batera eta aurretik Barret izeneko familia batek belaunaldiz belaunaldi landutako lurretara iristen denean jasaten duen gaitzespenarena. Gatazkak gero eta indar handiagoa hartuko du, tragedia bihurtzeraino.



Euskeraz Primeran!-ek euskaraz eroatera animatu ditu herritarrak merkealdien azokan

Urteroko ohiturari jarraituz, merkealdien azokan izan da Euskeraz Primeran! ekimena. Hiru egunez Errebalen egin den azokan mahaia jarri du ...eta kitto! Euskara Elkarteak, herritarrak erosketa-giroan ere euskara-
ren erabileraren inguruan kontzientziatzeko. Urtero moduan, mahaira gerturatu direnek dinamika erraz batean parte hartzeko aukera izan dute eta, trukean, Euskeraz Primeran!-eko poltsa eskuratzeko gain, Merkataritza Elkarteak emandako 100 euroko zozketan sartzeko aukera ere izan dute. Aldizkaria inprentara bidaltzerakoan zozketa egiteke zegoen baina datozen orduotan izango duzue irabazlearen berri ...eta kitto!ren sare sozialetan.



Tote Bag ikusgarriak egin zituzten Illunabarriarrieko saioan

Joan den martitzenean “Tote bag” izeneko oihalezko poltsak kustomizatzen ikasteko saioa antolatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Illunabarriarri programaren barruan. Tailerrera hurbildu ziren dozena bat lagunek, sormenaren laguntzaz eta teknika errazekin, poltsa pertsonalizatu ederrak egin zituzten. Euskarazko kultur eskaintza zabala eskaintzen du egitasmoak urtean zehar; hurrengo saioa, udaberriarekin batera etorriko da.

BARIXAKUAK JOLASIAN, BUELTAN DA!

OTSAILAK 27: Txaltxa Zelain
MARTXOAK 6: Torrekuako parkean
MARTXOAK 13: Urkizuko parkean

17:00-18:00

Umeentzat jolasak, doan

BERBETAN

...eta kitto!
EUSKARA ELKARTEA



Izengabeak musika-taldeen lehiaketarako izen-ematea zabalik dago

S.H. Eibarko eta Debarreneneko musikari gazteen talentua sustatzea helburu duen Izengabeak lehiaketaren bigarren edizioa egingo da aurren, iragarri dutenez. Eibarko Udalak eta Eibarko Musika Gazte Elkarteak (EMGE) antolatutako lehiaketa indartsu dator, gainera, iaz lehen edizioak izan zuen arrakastaren ostean. Musika-taldeentzat antolatzen duten sariketan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da taldekideen erdia gutxienez (%50) Debarrenean bizi zela, eta editatutako bi disko baino gehiago ez izatea. Bestela, ezinbesteko bi baldintza horiek betetzen dituen edozein talde hartu dezake parte, musika-estilo guztiak onartuko dira eta.

Izen-ematea zabalik dago, eta maiatzaren 17ra arte egin ahal izango da, Eibarko Udalaren web orrian eskuragarri dagoen formularioaren bidez. Izena ematen duten taldeek lau kantako bilduma bat bidali beharko dute, MP3 formatuan, eta haietako bi, gutxienez, originalak izango dira. Bildumaren gehieneko iraupena 20 minutukoa izango da. Kantuak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira, edo beste edozein hizkuntzatan, betiere euskarara edo gaztelaniara itzulita.

Iazko moduan, lehiaketa bi faseetan jokatu da aurren ere. Aukeraketa eta kontzertuen fasea izango da lehena (irailaren 18an eta 19an, antolatzaileek esango dituzten tokietan), eta ondoren etorriko da epaimahaia erabakia. Irabazleak 2.000 euro eta 50 estudio-ordu, Legarreko Musika Sormen Zentroan eramango ditu; eta, bigarrenak, 1.000 euro eta 50 estudio-ordu. Horrez gain, 500 euroko sari bereziak ere banatuko dituzte (euskarazko kantu onenari eta Eibarko talde onenari). Irabazleen izenak irailaren 19an izango den amaierako ekitaldian iragarriko dituzte.



Sanjuanak prestatzeko lehen bilera irekia bihar egingo da

S.H. Sanjuanetako egitaraua prestatzen joateko asmoz, bihar, zapatua, egingo da lehen bilera irekia, 11:00etan Txaltxa Zelaian, Jaixak Herriak Herri-xandako Eibarko jai batzorde feminista, parte-hartzailea eta euskaldunak antolatuta. Azaldu digutenez, “bilera ireki hauetan sanjuanetako egitarau herrikoia denon artean lantzeko asmoa dugu eta, aste honetako lehen bilera irekia izango denez, sanjuanetako kokapen orokor bat egiteko baliatuko dugu. Bilera Txaltxa Zelaiko eszenatokian egiteko asmoa dugu, eta hurrengo bilera irekien deialdiak gure sare sozialetatik igotzen joango gara. Gure helburu nagusietariko bat auzolanaren kultura sustatzea da, eta denon parte-hartzearekin aurtengo sanjuanetan ere jai herrikoi, feminista eta euskaldunak antolatuko ditugu”.

Deus Ez taldeak ‘Zain’ diskoa aurkezteko lehen kontzertua emango du bihar Eibarren

S.H. Arrazoi ezberdinengatik eszenatokietatik urruti ibili den Deus Ez taldea itzuli egin da, indartsu eta disko berriarekin, *Zain* izeneko lanarekin. Iaz, urte amaieran kaleratu zuten lana, baina oraindik ez dute zuzeneko aurkezpenik egin. Lana ezagutarazteko lehen kontzertua, beraz, bihar (zapatua, otsailak 28) 20:00etatik aurrera Zai-zoi tabernan emango dute-na izango da.





Usartza Txistulari Taldeak domeka eguerdian joko du

S.H. Asteburu honetarako, domekarako (martxoak 1) iragarri du Usartza Txistulari Taldeak neguko hirugarren kontzertua: 12:45ean hasiko da, Untzagan, udaletxeko arkupeetan. Aurretik, 10:30ean, Legarre auzoan kalejira egingo dute. Enrique Monterok zuzentzen duen taldetik azaldu digutenez, Jose Ignazio Ansorenak idatzi eta moldatutako doinuak joko dituzte, “erritmo askotarikoak, doinu-jolasak eta kan-tu tradizionalak entzun ahal izango dira”. Gainera, emanaldian Iñaki Orbegozo taldekidea perkusioan arituko da, marinbarekin.



‘Zumbatoi morea’ egingo da martxoaren 7an Errebal Plazan

S.H. Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, aurren ere *Zumbatoi morea* izeneko ekimena egingo dela iragarri dute antolatzaileek, Eibarko Udalak eta Neledantza udal dantza eskolak. Errebal Plazan izango da, martxoaren 7an (zapatua), 11:00etatik 12:15era bitartean. Aurreko edizioetan bezala, animatzen diren guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Egunean bertan agertu eta gorputza mugitzen hastea, besterik ez da behar.



Korrika Eguneko bazkariko tiketak saltzen hasiko dira

S.H. Eibarko AEK-k jakinarazi duenez, Korrika Eguneko herri bazkariko tiketak domekan, martxoaren 1ean, salgai jarriko dituzte Untzagan, 11:30etik 14:30era. Salmenta-postu horretan, herri bazkariko tiketez gain, Korrikarekin lotutako hainbat produktu ere eskuragarri egongo dira, besteak beste, korrikako petoak eta arropa. AEK-k gogorarazi du tiketak agortu arte egongo direla salgai, eta herritarrak lehenbailehen hurbiltzera animatu ditu.

Historiari buruzko hitzaldi-zikloa

S.H. Aurren ere ikasleentzat hitzaldi-ziklo bat antolatu du Ego Ibarra Batzordeak, herriko ikastetxeekin lankidetzan. Azaldu dutenez, “DBH 4 eta Batxilergoko ikasleei zuzendutako hitzaldi hauen gaia ikastetxeek aukeratzen dute, helburua ikasgaien gaitegiarekin erlazioa izatea baita”. Hiru hitzaldi izango dira guztira, eta gaur izan da lehena, Aldatzeko ikasleentzat: Maria Laespada Lazpita aritu da, *Diktadura frankista (1939-1959)*. *Gerraostea eta autarkia* izenburuari jarraituta. Martxoaren 10ean (martitzena) La Sallen izango da saioa: Jon Aldabaldetrekuek Delgadok emango du *Diktadura frankista (1959-1975)*. *Garapen ekonomikoa eta gizarte eraldaketak* izenekoak. Eta martxoaren 18an *Euskaldunak Bigarren Mundu Gerrako kontzentrazio esparruetan* izenburukoak emango du Etxahun Galparsoro Ansolak, Eibar BHI-n. Nahiz eta ikasleei zuzendutako hitzaldiak izan, herritarrek ere gerturatzeko aukera dute. Interesdunek egoibarra@eibar.eus helbidera idatzi beharko dute.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			4	8				2
	8					9		
		4			9	6	5	
2				6	4			
		5				1		
			9	7				3
	1	9	5			3		
		8					7	
4				1	8			

SUDOKUA

6	9	2	5	8	1	7	3	4	5
1	7	4	7	1	9	6	3	2	8
9	8	3	2	5	4	2	7	1	6
3	6	2	5	2	7	6	1	4	8
7	1	4	1	4	2	8	5	6	9
5	9	6	8	9	7	1	3	2	4
8	9	6	3	2	1	7	4	5	8
4	6	7	9	5	6	2	8	3	1
2	3	1	7	8	1	5	6	9	2

5	2	6	9	1	8	3	7	4	5
9	3	8	7	4	5	6	1	2	8
8	6	2	7	1	4	1	9	5	3
3	7	2	5	9	6	1	8	4	7
6	1	9	6	3	2	7	5	8	4
5	3	4	8	7	1	4	2	9	6
8	5	1	4	2	3	9	7	6	1
1	9	5	9	8	1	6	3	7	2
2	4	4	6	5	9	9	1	7	8
6	5	7	1	4	9	3	8	2	5

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		7		4		3		
					8	1	9	7
	9			2				
			2				5	8
5								9
4	8				5			
				9			4	
2	1	9	5					
		3		1		9		

HIEROGLIFIKOAK



Lapikoan itsatsi zait



Ez dut sekula bisitatu

Otsailak 27 - Martxoak 5

BARIXAKUA 27

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Bi eta zortzi urte bitarteko haurrentzat jolasak, doan...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Txaltxa Zelai.

KOMITE INFORMATIBOA

18:00 Greba Orokorriari buruzko komite informatiboa, Ernai gazte antolakundearen eskutik. Arrate Kultur Elkartea (1. solairua).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "El peor espectáculo del mundo" (Zanguango Teatro). 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Uni Eibar antzokia.

BERTSO TXAPELKETA

20:15 Gipuzkoako herriarteko bertsotxapelketa. Debabarreneko bigarren kanporaketa. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairua).

ZAPATUA 28

PALA TXAPELKETA

09:00etatik aurrera: Agirrebeña-Patxi / Gurrutxaga-Conde; Apraiz-Txiflo / Letu-Gaztelu. 16:30etik aurrera: Narbaiza-Agirresarobe / Egia-Zugan; Amas-Bartolo / Luken-Ales. Astelena frontoia.



TAILERRA

10:00/11:00 Luzaketa-marraketa tailerra, Nuria Rodriguez eta Maite Arriagarekin. 25 euro (20 euro Kulturaleko bazkideentzat). Arrate Kultur Elkartea.

TAILERRA

10:00/12:00 Klown tailerra, helduentzat (hastapena). Ipuruako Merkatu Plaza.

BILERA IREKIA

11:00 Sanjuanak prestatzeko bilera irekia, Jaixak Herriak Herrixandakok antolatuta. Txaltxa Zelai (eszenatokia).



ZAPATUKO IPUINA

12:00 "Liburu magikoa", Prospero Teatroko Leire Catalaren eskutik. Portalea (areto nagusia).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00 "Hodei guztien gainetik" (Markeliñe). 5 euro. Coliseo.

MUSIKA

20:00 Deus Ez taldearen kontzertua. Zai-zoi taberna.

DOMEKA 1

MENDI JARDUNALDIAK

08:30 Negutrail topaketa, Oihana Azkorbebeitiarekin. Kalamua Korrikalari Taldearekin elkarlanean antolatuta. Eibarko Klub Deportiboa (atarian).

EKITALDI POLITIKOA

11:30 Alderdi sozialistaren eskutik, Astelenako mitinaren 50. urteurrena gogoan. Sarrera librea. Errebal Plazia (erabilera anitzeko gela).

KORRIKA

11:30/14:30 Salmenta postua: petoak, arropak, herribazkarirako tiketak (Korrika Eguna Eibarren). Eibarko AEK-ren eskutik. Untzaga.

MUSIKA

12:45 Usartza Txistulari Taldearen kontzertua. Untzaga (udaletzeko arkupeak).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

MARTITZENA 3

ANDRETXEASEX

17:00/19:00 Sexu-aholkularitza zerbitzua. Dohainik (aldez aurretik hitzordua eskatu behar da). Andretxea.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "La barraca" (Teatro de Malta, Olympia Metropolitana, Pentacion). 15 euro (10,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00 "Himalaya en estilo alpino", Mikel Zabalzarekin. Ikus-entzunezkoa eta solasaldia (gazteleraz). Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).

EGUAZTENA 4

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikastenen eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

AURKEZPENA

18:30 Zaporeak Debabarrena erronkaren aurkezpena. Eibarko udaletxea (pleno aretoa).

EGUENA 5

LIBURU AURKEZPENA

18:00 "Amaieratik hasi. Euskal Feminismoa, aldaketarako paradigma", Naia Torrealdei Mandaluriz eta Ekhiñe Petriatiren eskutik. Antolatzailea: Martxoak 8 Lantaldea. Sarrera librea. Andretxea.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Hasta el ultimo baile" (Eva Guerrero). 12 euro (8,50 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 28ra arte

"Zientzia-emakumeak argira", Elhuyar Fundazioaren eskutik. Andretxea.

Martxoaren 2tik 31ra

"Greba orokor feminista-rantz", Martxoak 8 Lantaldearen eskutik. Andretxea.

Martxoaren 22ra arte

"Gai grisa", erakusketa kolektiboa. Portalea.

ZINEA COLISEO



“El vestido”
IZUA. INTRIGA
2026/Espainia/90’
Zuzendaria: Jacob Santana
Aktoreak: Belén Rueda, Vera Centenera Carnero, Elena Irureta
Naturaz gaindikoa. Amatasuna

1 ARETOA

- **28an:** 17:00
- **1ean:** 17:00

ANTZOKIA

- **28an:** 19:45, 22:30
- **1ean:** 20:00
- **2an:** 19:30



“Return to Silent Hill”
IZUA. THRILLERRA
2025/Frantzia/106’
Zuzendaria: Christophe Gans
Aktoreak: Jeremy Irvine, Hannah Emily Anderson, Robert Strange
Naturaz gaindikoa. Bideojokoa

1 ARETOA

- **28an:** 19:45, 22:30
- **1ean:** 20:00
- **2an:** 19:30



“La tarta del presidente”
DRAMA.
2025/Irak/105’
Zuzendaria: Hasan Hadi
Aktoreak: Baneen Ahmad Nayyef, Sajad Mohamad Qasem, Haurtzaroa.
Politika

2 ARETOA

- **28an:** 19:45, 22:30
- **1ean:** 17:00, 20:00
- **2an:** 19:30



“Evolution”
ANIMAZIOA. KOMEDIA
2026/Espainia/94’
Zuzendariak: Julio Soto Gorpide, Zayra Muñoz Domínguez
Animaliak. Zientzia fikzioa

2 ARETOA

- **28an:** 17:00

ANTZOKIA

- **1ean:** 17:00

FUNEUSKADI
Grupo Asistira

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeuskadi

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Oñate

TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Elgoibar:
Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Luis Javier Oregui Zabaleta
“Plaentxi”

1. URTEURRENA
2025/02/23

“Beti egongo zara gure bihotzetan”

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEOAK -

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **LIBE!**
Bixar 5 urte haundi beteko ditzuzulako. Musu pila bat Eneko, amatxo ta aitatxon partez!



Zorionak **IKER** mutil haundi Eguen honetan 13 urte egin dozuz eta. Patxo haundixak famelixa guztixan partez.



Zorionak **XABAT!**
Otsailaren 25ian 8 urte bete ditzuzu. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak **SARA!**
6 urte betetzen ditzuzu! Patxo haundi bat etxekuen partez! Asko maite zaittugu.



Zorionak **ARRATE!**
Otsailaren 25ian 30 urte bete dozuz. Zorionak eta 30 musu haundi zure lagunak partez!



Zorionak **MARA!**
24an 6 urte bete zenduaz! Musu haundi bat etxeko guztien partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak **PERU!**
Hilan 27xan, 3 urte beteko dittu gure etxeko txikixak! Zorionak famelixa guztixan partez.



Zorionak **AIORA** maitxia! Martxuan 4an 17 urte betetzen ditzuzu. Patxo erraldoia ama, aitta eta Oihenarten partez.



Zorionak **JULEN!**
Domekan 7 urte beteko ditzuzu! Jarraitu zure irribarre politxakin ingurukoak alaitzen! Musu haundi bat famelixaren partez!



Zorionak **NILE** eta **XANET!**
Domekan 11 urte beteko dozuez. Oso ondo ospatu famelixa eta lagunekin! Maitte zaittuegu. Patxo haundi bat.



Zorionak **IZAN!**
Otsailaren 25ian 9 urte egin ditzuzu! Besarkada eta musu asko famelixa guztixaren parte. Asko maite zaittugu.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK
3.2. Errentan
• Ipuruan, batez ere J.A. Mogel inguruan, garajea alokairuan hartuko nuke. 646369330.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala, baita ospitaletan ere. Edozein ordu eta egunetan. 642852654.
• Emakumea eskaintzen da haurrak edota nagusiak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere. Edozein ordu eta egunetan. 643026656.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako edota ostalaritzako edozein lan motarako. 602040399.
• Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, edota umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. 643526006.
• Mutila eskaintzen da erai-kuntzan, mendiak garbitzen baserrietan lan egiteko, e.a. 684810874.
• Emakumea eskaintzen da garbiketa lana egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 684810875.
• Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edota ostalaritza lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 652333106.
• Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edota ostalaritza lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 632065398,

- Erizaintzako Laguntzaile titulua eta Soziosanitario Ziurtagiria duen gizona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Eskarmentuarekin. 674889487.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala edo orduka, baita ospitaletan ere. Edozein ordu eta egunetan. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da interna bezala lan egiteko, ume zein nagusiak zaintzeko, edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 602343572
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala, baita ospitaletan ere. Edozein ordu eta egunetan. 642852854.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Orduka edo interna moduan. 611557583.
- Nagusiak edo umeen zaintzarako langilea eskaintzen da. Esperientzia eta disponibilitate osoarekin. 642450647.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Soziosanitario ziurtagiriarekin. Edozein ordu eta egunetan. 612418185.
- Emakumea eskaintzen da edozein motako etxeko lanak burutzeko, nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Aste-buruetan bakarrik. 613 287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edota ostalaritzako edozein lan motarako. 632768653.

4.2. Langile bila
• Sukaldaria behar da Debabarreneko jatetxe baterako. Esperientziarekin eta kotxearekin. Currículuma bidali whatsapp-pe: 672258100.
• Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegiri baterako. Lan giro bikaina. 943208125.
5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.
6. DENETARIK
6.2. Eman
• Zortzi hilabeteko 'huskey siberiarra' oparitzen da. 613 543774.
• Egoera oso onean dauden bi altzari oparitzen dira: 80 cm-ko zabalera eta 6 kajoiko egurrezko sinfoniera. 70 cm-ko zabalera eta 2 m inguruko altueradun egurrezko armairua. 658715978.

ek!

Jarraitu
gaitzazu gure
difusio kanal
berrietan



WHATSAPP



TELEGRAM



Zure eguneroko albiste boletina!

Hirierdi

- Eibar-



Azken etxebizitza!

295.800 + BEZ

Garajeak salgai


12.360 + BEZ

Trastelekuak salgai

4.656 + BEZ

Lokalak salgai

63.396 + BEZ



INFORMA ZAITEZ

Foru Pasealekua 1, 20005 Donostia (Gipuzkoa)

T. 943 543 543

www.hirierdi.com